

EN MARCHA PARA
ACABAR CON LA
PRECARIEDAD DE
MÁS DE 541.000
PERSONAS

> PÁG. 04

LEY MORDAZA:
¿QUIÉN
CONTROLA AL
CONTROLADOR?

> PÁG. 12

ETXEBIZITZA:
ESKUBIDEA
ALA LUXUA?

> 17. ORR

Iera Agirre eta
Oinatz Bengoetxea

**Pilotan
banaka,
borrokan
taldean**





4

ERREPORTAJEA

ELA se marca como objetivo prioritario abolir la precariedad laboral



20

ERREPORTAJEA

**Alda (Iparralde):
Relato de una victoria
en los alquileres
de viviendas**



24

ELKARRIZKETA

**Oinatz Bengoetxea
eta Iera Agirre,
pilotariak**

40

ELKARRIZKETA

**Mikel Aramendi:
“Mendebaldeko
potentziek munduan
agintzen ez duten aro
batean sartzen ari gara”**



ALDAko ahotza | Editoriala 03

ALDAko lagunak: Iñaki

Lasagabaster 10

ALDAko lagunak: Erika 12

Martínez..... 12

Etxebizitza:

Eskubidea ala luxua? 16

Entrevista a Andrea Momoitio en
torno a su libro “Lunática” 32

ErALDATzen 38

ALDAko hiztegia:

Errenten Ituna 47

PostALDA 48

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaritza: Iván Giménez
eta Nagore Uriarte.

Koordinazioa: Nerea Ispizua.

Lantaldea: Gorka Quevedo,
Gabriel Zeberio, Lander Zabaleta
eta Davide Cabaleiro.

Argazkiak: ALDA eta Foku.

Ilustrazioa: IratINK.

Argitarazle: ELA, Euskal Sindikatua.
Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00.

www.ela.eus/alda • alda@ela.eus

Lege-gordailua: BI-425-2018

Ale kopurua: 101.100

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Maiatzaren Lehena: Ari gara

Maiatzaren Lehena urtero dator, eta, irudi, lelo eta kartelak ugaritzen dira gure kaleetan, *efemeride* bat gehiago balitz bezala, ohitura bat, sindikatuen errituala... Ba ez, gurean Maiatzaren Lehena ekintza zehatzak aurrera eramateko pizgarria da, aurten ere. Eta garai hauetan, aurrean daukagun errealitatea aztertzen badugu, badago zer aldatu:

Prekaritateak langile guztiei eragiten die, baina badaude bereziki kolpatuak diren kolektiboak: gazteak, emakumeak eta migratuak. Datu batzuk ematearren:

» Gazteen langabezia tasa %35ekoa da.

» Soldatapeko emakume langileek gizonek baino %33 gutxiago kobratzen dute.

» Langile migratuek autoktonoen erdia kobratzen dute bataz-beste.

» 19 eta 25 urte arteko gazteen batez bestekoak gutxieneko soldata baino 181 euro gutxiago irabazten du.

» Aniztasun funtzionala duten langileen langabezi tasa beste langileena baino 10 puntu altuagoa da, okupazio tasa 40 puntu txikiagoa.

Bestalde, azken lan erreformak (CCOO eta UGT sindikatuek sinatuta) prekaritate molde batzuei ateak ireki dizkio. Hemen adibide bat, beste askoren artean: orain arte obra kontratua izan da behin-behinekotasunaren arrazoi nagusia; hemendik aurrera 'finko ez-jarrai' kontratua izango da.

Finko ez-jarrai kontratuetan, idatzi duten eran, enpresen boterea langileekiko izugarria izango da, etxean izango dituzte langileak dei baten zain eta enpresak nahi duenean deituko ditu lan egitera, eta deitzen ez dituenean oso zail izango du langileak ezer eskatzea. Gobernuentzat kontratu honek abantaila izugarria izango du; estatistiketan ez da behin-behineko kontratu gisa azalduko.

Badakigu 541.600 lanpostu prekario baino gehiago badagoela Hego Euskal Herrian. Maiatzaren Lehena pizgarria izango da kopuru hori murrizteko bidean.

Ari gara, bi hitzetan esanda. 

Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: www.ela.eus podrás descargar la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.

HEMEN 541.600 LANPOSTU PREKARIO BAINO GEHIAGO DAUDE

NAFARROAN
134.300

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN
407.300

Lan
prekario
gehiagorik ez!



Aboliendo la precariedad laboral

ELA emprende un plan para acabar con la situación de precariedad de 541.600 personas (407.300 en la CAPV y 134.300 en Navarra)

ALDA

La precariedad se está convirtiendo en la principal característica del mundo del trabajo, en un auténtico problema endémico. Según datos de ELA, en Hego Euskal Herria hay más de 541.600 empleos precarios. Es decir, más de la mitad de las personas asalariadas de nuestro país sufren la precariedad. Es una cifra tremenda, la cruda realidad de ese supuesto oasis en el que algunos afirman que vivimos.

Tres elementos caracterizan la precariedad: la temporalidad, los bajos salarios (inferiores a 18.200 euros al año) y la salud laboral.

La precarización golpea especialmente a mujeres, jóvenes, personas migradas y con diversidad funcional. Un ejemplo de ello es que de los 541.600 empleos precarios, 311.000 corresponden a mujeres, en torno al 60%. Otro dato: una de cada cuatro personas asalariadas tiene un contrato eventual, y casi una quinta parte está a tiempo parcial.

Entre los jóvenes la cifra es aún peor: tienen una tasa de paro del 35%. Y entre los trabajadores y

trabajadoras con diversidad funcional, el paro es diez puntos superior.

Por último, cabe destacar que en la última década han fallecido 17.000 personas en accidentes de trabajo o por enfermedades relacionadas con el trabajo, situación que se ha agravado, aún más, con la pandemia.

Ante esta dura radiografía de nuestro mercado laboral no es extraño que ELA haya decidido convertir la lucha contra la precariedad en el principal reto del sindicato. “Rebelarse y organizarse en contra de la precariedad laboral es la tarea más importante que tiene el sindicato”, ha asegurado **Mitxel Lakuntza**, secretario general.



Hego Euskal Herrian 541.600 lanpostu prekario baino gehiago daude. Datu izugarria da. Hau da gure ustezko oasiaren errealitate gordina! ELAk prekarietateari aurre egingo dio bere baliabide guztiekin.

¿QUÉ ES PRECARIEDAD LABORAL?



»»» **La pobreza es precariedad.** Todo el mundo necesita un salario que garantice unos ingresos suficientes para una vida digna. ELA sitúa esta barrera en 18.200 euros anuales.

»»» **La falta de estabilidad es precariedad.** La ausencia de un contrato indefinido dificulta enormemente la construcción de un proyecto de vida. Aquí entran las personas que no tienen contrato, las que solo tienen una beca o están en prácticas o con contratos eventuales, por ejemplo, así como los falsos autónomos.

***El 25,1% de la población asalariada tiene contrato eventual en Hego Euskal Herria (13,4% de media en la UE-27). Sólo en las administraciones hay más de 70.000 eventuales.**

***El 16,6% de la población asalariada tiene un contrato a tiempo parcial en Hego Euskal Herria.**

***Según el Servicio Público de Empleo estatal, el 95,2% de los contratos iniciales firmados en lo que va de año son temporales y el 34,1% son a tiempo parcial.**

Al fin y al cabo, la precariedad es tener a las personas trabajando al límite: si pierden lo poco que tienen lo pierden todo. En este sentido, la precariedad es una herramienta disciplinaria para las empresas, que confían en que las personas más vulnerables no puedan organizarse o movilizarse por miedo.

»»» **Los trabajos que enferman son precariedad.** Trabajar puede hacer enfermar y morir, porque se trabaja con productos peligrosos, porque se pueden sufrir caídas y atropellos de máquinas, porque la inadecuada organización del trabajo genera problemas tanto físicos como mentales o porque se sufren situaciones de acoso. Todas estas casuísticas se están extendiendo por el mundo laboral.

No tenemos más que analizar el número de muertes laborales de los últimos años para ver el riesgo mortal que supone trabajar. Hay que tener en cuenta que por cada persona fallecida en accidente laboral fallecen otras 25 por enfermedades profesionales. Es decir, en los últimos diez años, en Hego Euskal Herria han fallecido unas 17.000 personas a causa del trabajo. Y a eso habría que añadir las que se han contagiado de COVID-19 en el trabajo y han fallecido, o sus familiares. La crisis sanitaria ha demostrado, aún más claramente, que poner vidas en peligro es un precio que los gobiernos y patronales tienen que afrontar y pagar, ya que son los responsables de este sistema. 



Prekarioetan
prekarioenak gazteak,
pertsonek migrariak eta
emakumeak dira.

Dicho y hecho. ELA ha dado el pistoletazo de salida a una campaña que se desarrollará en los centros de trabajo mediante la negociación colectiva, estableciendo medidas anti-precariedad y contra la brecha salarial, así como exigiendo a la patronal y a la administración medidas como la consolidación o subidas salariales acordes al IPC, entre otras. Y es que “la precariedad laboral es una *anormalidad* que la patronal y los gobiernos han construido, para reducir el gasto público y para que las empresas aumenten sus beneficios”.

Evidentemente, el reto es ambicioso, en las empresas y fuera de ellas. En este sentido, la secretaria general adjunta de



ELA, **Amaia Muñoa**, ha incidido en la necesidad de superar los "límites del Diálogo Social" a través de la negociación colectiva: "Las oportunidades de mejora no dependen de esas mesas, sino de nuestra capacidad organizativa y de la cercanía al problema", ha afirmado. Más aún ahora que la inflación está golpeando a los que tienen menor poder adquisitivo. "Debemos defender la subida salarial para que el empobrecimiento no se extienda". Y para ello, la huelga se convierte en un instrumento imprescindible.

La reforma laboral no acabará con la precariedad

Recientemente, se ha aprobado una reforma laboral en Madrid. ELA cree que esta reforma laboral cerrará la puerta a unos moldes de precariedad y la abrirá a otros. Hasta el momento, la razón principal de la temporalidad ha sido el contrato de obra. A partir de ahora será el contrato de fijo no continuo. El poder de las empresas respecto a la clase trabajadora será enorme: tendrán a sus empleados y empleadas en casa esperando una llamada. Para el Gobierno este contrato tendrá una ventaja enorme: no figurará en las estadísticas como un contrato eventual.

Además, independientemente de lo que diga la ley, muchos empresarios utilizan la mentira y el fraude para imponer contratos temporales. La labor contra este fraude la debería llevar a cabo la Inspección de Trabajo, pero al carecer de medios para ello lo tendrán que hacer los trabajadores y trabajadoras, con la ayuda del sindicato. [A](#)

<https://www.ela.eus/es/precariadad>



PROPUESTAS DE ELA

» Establecer, siguiendo las recomendaciones europeas, un salario mínimo digno de, al menos, el 60% de los salarios medios. Esto equivaldría a 1.381 euros mensuales.

» Establecer un contrato mínimo de 20 horas semanales para evitar la pobreza que suponen las jornadas parciales. Asimismo, la obligación para las empresas de complementar de forma definitiva las jornadas parciales cuando queden horas disponibles o se incrementen las cargas de trabajo.

» Que las personas subcontratadas tengan garantizado el derecho de subrogación, es decir, que tengan asegurado el derecho a trabajar en la nueva empresa cuando la empresa matriz cambie de subcontrata.

» Establecer la nulidad de los despidos de eventuales en fraude.

» Que las administraciones consoliden a las 70.000 personas eventuales contratadas fraudulentamente.

» Equiparar el número de personal en inspección con Europa para atacar el fraude en la contratación y garantizar una buena salud laboral, lo que supondría duplicar el número de profesionales. [A](#)





Isabel Barreda, trabajadora de la empresa farmacéutica Altan Bernedo. Tras 100 días de huelga han logrado un convenio propio

“Precariedad es vivir en Gasteiz y que te apliquen un convenio estatal de miseria”

J.JAIO

Isabel Barrera tiene 50 años y lleva 18 trabajando en la empresa farmacéutica Altan Bernedo, cuya plantilla, compuesta mayoritariamente por mujeres, ha protagonizado una huelga de más de 100 días, que culminó el 7 de marzo con la firma de su primer convenio de empresa, blindado contra la reforma laboral y con incrementos salariales ligados al IPC. De este modo, la plantilla de Altan Bernedo evita que les apliquen las condiciones mucho más precarias del convenio estatal de Químicas, amenaza que la empresa ha utilizado durante años y a la que ha recurrido, también, antes y durante la huelga.

Isabel no tiene ningún reparo en considerarse una trabajadora precaria, aunque espera que ahora que han logrado un convenio propio puedan ir mejorando sus condiciones laborales en futuras negociaciones. “Hemos puesto las bases para salir de la precariedad, pero nos queda camino por recorrer”, afirma.

Y es que a esta trabajadora, casada, con dos hijos, y con un marido que trabaja en el sector de la madera, un convenio bastante precario, también, le cuesta llegar a final de mes. “Y cuando llega algún gasto extra como seguro de la casa, coches, una avería... te deja temblando”, comenta.

Isabel compara la situación en su casa con la que vivió en su infancia y juventud, y siente que sale perdiendo. “Solo mi padre trabajaba fuera de casa y sacaron adelante una familia con tres hijas. Entre el sueldo mío y de mi marido, con dos hijas, llegamos justitos”. “Vivimos en una sociedad muy complicada. Me parece increíble que tanta y tanta gente esté ganando poco más que el Salario Mínimo



Interprofesional, ahora que ha subido. Esto no puede seguir así”.

¿Es posible luchar contra la precariedad? preguntamos. “Sí. Nosotras lo hemos demostrado”, responde con rotundidad.

Tras una huelga de 100 días, la primera de su vida, Isabel tiene claro que la huelga es el único camino para cambiar las cosas, para dignificar el mundo laboral y acabar con la precariedad. “La verdad es que nosotras salimos a la calle porque la empresa quería empeorar aún más nuestras ya precarias condiciones laborales. Fue un iya vale, basta ya!. Pero una vez en la pelea y tras nuestra victoria sindical tengo claro que es el único camino que nos dejan”, asegura.

Isabel confiesa que cuando salieron a la huelga no las tenía todas consigo, pero el resultado ha sido muy satisfactorio. “Tenemos un convenio propio y la plantilla se ha conocido, unido y empoderado. Con estas bases vamos a poder lograr muchas más cosas”, afirma. “Hemos perdido el miedo”, concluye. 



Leire Meabeansorena sukaldaria da Gernikako Allende Salazar eskola publikoan. Borrokan dago bere lanpostua kontsolidatzeko eta ordezkapenak lehen egunetik egin daitezen

“Orain dela 13 urte hutsik dagoen postu batean lanean egon arren, kaleratua izateko arriskua egotea prekaritatea da”

M.P.

Leire Meabeansorenak 45 urte ditu. 2001ean EPE batean izena eman zuen. Ordutik 2009 arte hezkuntzako sukaldaritza lanetan aritu da ordezkapenak egiten.

2009tik Gernikako Allende Salazarreko eskola publikoan hutsik dagoen postu batean lanean ari da. Bederatzi urte dira egiturazko lanpostu batean lanean ari dela aldi baterako kontratu batekin.

Urtero beldur da. Izan ere, funtzionario batek bere plaza eskatu dezake, lekualdatze lehiaketa batean, adibidez. Hori gertatuko balitz, berak enplegua galduko luke, inongo kalte-ordainik jaso gabe, gainera. “Hori da sektore publikoan pairatzen dugun prekaritatea”, kexu da.

Gaur egun lanaldi osoko lan kontratua dauka eta soldata duina jasotzen du. Ez da, ordea, beti horrela izan. Sektoreko lankide askok lanaldi partzialak dituzte: bi orduko kontratuak, lau ordukoak... Hori ere prekaritatea da, ezinezkoa baita bizitzeko adina diru-sarrera izatea.

Sektore honetan lan segurtasunean eta prebentzioan hutsune handia dago. “Gure eskolan 700 umerentzako jatekoa prestatzen dugu. Pentsa zenbat kazola, zartagin eta sukaldeko tresna erabiltzen ditugun. Pisua altxatzeaz gain, garbiketa lanetan jarrera desegokietan izan ohi gara. Ondorioz, lesio muskulueskeletikoak eta bajak ohikoak dira”.

“Gainera, lan erritmo biziak ditugu langileak falta direlako beti. Egoera are gehiago okertu da pandemian eta estresa handitu da, musukoaren derrigortasunagatik eta jatekoen txandak handitu direlako”.



Meabeansorenaren iritziz, euren kategoria profesionala aintzat ez hartzea, hau da, kualifikaziorik gabeko langiletzat hartzea ere prekaritatea da. Horren ondorioz era guztietako lanak agintzen dizkiete: jatekoa prestatu, mahaia antolatu, garbitu (komunak ere) edota mantentze lanak egin. Hori gutxi balitz, bere eskolan konpostagailuaren gaineko ardura daukate.

“Hori bai –kexu da– ez dute geure iritzia ezertarako kontuan hartzen. Are gehiago, jantokiko arduradunak irakasleak dira”. “Oso garrantzitsua da umeei jateko osasuntsua eskaintzea, baina gure lanari ez zaio baliorik aitortzen...”, dio.

Leire eta bere lankideek greba eta mobilizazioetan parte hartzen dute euren lanpostuak kontsolidatzeko eta ordezkapenak lehen egunetik egin daitezen. Argi daukate borroka dela prekaritateari aurre egiteko bidea eta ELA dela horretarako tresna. [A](#)





Edorta Conde, jardinero de Ortuella. Tras tres días de huelga han logrado un convenio propio con importantes subidas salariales

“Precariedad es que tus condiciones laborales se rijan por un mal convenio estatal que ni siquiera se cumple”

J. JAIO

Edorta Conde tiene 37 años y trabaja desde hace 7 en el servicio de jardinería de Ortuella para la subcontrata Ansareo. Durante todo este tiempo, la empresa ha estado aplicando a sus trabajadores -en este momento seis- el convenio estatal de jardinería. Con una importante salvedad: desde 2012 no abonaba el plus de toxicidad, penosidad y peligrosidad; una cantidad sustancial en un trabajo, además, que se realiza en alturas, taludes, al borde de las carreteras... con riesgos laborales evidentes.

Conde explica que esta anomalía se ha mantenido en el tiempo porque la empresa ha jugado a dividir a la plantilla. Hasta que, finalmente, abordaron el problema con seriedad y fueron capaces de unirse y decidir plantar cara a la empresa y al Ayuntamiento, por tratarse de un servicio subcontratado.

“Decidimos sindicalizarnos en ELA y nos marcamos como objetivo negociar un convenio colectivo propio. Al partir de una situación precaria nuestra principal reivindicación era salarial”, relata. En febrero, tras tres días de huelga y con la intervención del Ayuntamiento de Ortuella, la plantilla de jardinería logró un convenio que comenzará a aplicarse en junio. “Hemos logrado un convenio propio, con vigencia 2022-2026. La subida salarial de este año será del 20%, y para el resto de años hemos firmado subidas por encima del IPC. Asimismo, hemos logrado incrementos en distintos pluses”, relata con orgullo.

En opinión de este delegado sindical, la unión de la plantilla y haber decidido sindicalizarse en ELA



han sido claves para acabar con la situación de precariedad que soportaban. “Ser capaz de unirnos y funcionar de manera colectiva, tras años de buscarnos la vida cada uno por nuestro lado, ha sido fundamental. Y luego, ELA, que ha estado en todo momento asesorándonos y organizándonos”, afirma convencido.

Edorta Conde asegura que la plantilla está contenta con el acuerdo alcanzado. “Tener subidas salariales por encima del IPC en los tiempos que corren es toda una victoria sindical”, afirma, para continuar asegurando que “nuestra experiencia demuestra que luchar merece la pena”.

De cara al futuro, este delegado sindical se marca como objetivo abordar otras mejoras sociales y de seguridad y salud en el trabajo. “Las medidas que tenemos, en general, son adecuadas, pero siempre hay cosas a mejorar”.

Al fin y al cabo, la falta de seguridad laboral es otra cara de la precariedad. 

»»» Lan prekario gehiagorik ez!



ELAk prekaritatearen kontrako konpromisoa berretsi zuen apirilaren 6an Bilboko La Casilla kiroledegian egindako ekitaldian. Guztira sindikatuko 3.300 ordezkari baino gehiago elkartu ziren prekaritateari aurre egiten ari diren langileen lekukotzak entzuteko.

Ekitaldian, Mitxel Lakuntza idazkari nagusiak azpimarratu zuen ezin dela normalizatu Hego Euskal Herrian gutxienez soldatapeko 541.000 prekario izatea. Horri aurre egiteko hainbat neurri proposatu zituen: gutxienerako 1.381 euroko soldata, KPlaren arabeko soldata igoerak, langile publikoen kontsolidazioa, ikuskarien kopurua bikoiztea, azpikontratutako langileentzat subrogazioa, energia enpresen publikazioa...

Lan prekaritatea arazo sozial larria da; lan baldintza kaskarrek gero eta heriotza eta gaixotasun gehiago sortzen dituzte. [A](#)



Iñaki Lasagabaster, catedrático Derecho EHU-UPV

Ley Mordaza: ¿Quién controla al controlador?

Mozal Legea
deiturikoa gizarte
demokratiko
aurreratuen
ezaugarriak kontuan
hartu gabe eman da.
Horietan, oinarritzko
eskubideek, oro
har, eta parte-
hartze politikorako
eskubideak, zehazki,
askatasun publikoak
ahalik eta zabalenak
izan daitezen
interpretatu behar
dira.

Las sociedades modernas jurídicamente organizadas tienen como fundamento de su existencia el respeto de la dignidad humana. Las personas deben ser la base de toda política democrática, sus derechos, individuales o colectivos. Sin embargo, vemos con frecuencia que este principio se olvida. Si se trata de la economía, el medio ambiente o la guerra de Ucrania es legítimo preguntarse si el respeto y garantía de los derechos humanos constituye el punto central de análisis para adoptar una política determinada (algún autor se ha planteado si Ucrania no debía haberse rendido, como forma más eficaz de defensa de los derechos de su ciudadanía). La necesidad de valorar su afectación a los derechos fundamentales se manifiesta en todas las decisiones y políticas públicas, con mayor o menor intensidad.

Si hablamos de la seguridad pública y, en concreto, de la seguridad ciudadana comprobamos el mismo problema, aunque quizá acentuado. En concreto, al tratarse de la seguridad ciudadana se suscita inmediatamente la consideración del papel que le corresponde a la policía. Como sucede en otras cuestiones, la seguridad es necesaria para disfrutar de nuestros derechos pero, al mismo tiempo, la seguridad exige un aparato policial que la garantice. Se trata del eterno dilema entre seguridad y libertad, donde el equilibrio siempre es inestable y fluido. Dicho de otra forma, en nuestra sociedad las normas deben atender a este doble objetivo: a) que la policía garantice el disfrute de nuestros derechos, la policía nos protege y b) nuestros derechos establecen límites a la actuación de la policía, debemos de protegernos ante las intervenciones de la policía.

POLICÍA Y PROTECCIÓN A LA CIUDADANÍA

La respuesta de la política al regular la seguridad ciudadana debe pensar en la protección de la ciudadanía por la policía y la protección de la ciudadanía de la policía. La regulación en vigor acentúa el primer momento, la protección por la policía, lo que significa el otorgamiento de unos poderes a la policía excesivos, estando la Administración policial habilitada para utilizar medios y funcionar con unos controles muy limitados.

Polizia-administrazioak esku hartzeko protokolo batzuk izan beharko lituzke, esku-hartze bakoitzaren ondoren zehazteko: zein poliziek esku hartu duten, nor den arduraduna, zein tresna erabili diren... Hau guztia behar bezala dokumentatuta egon behar da, arauetan ezartzen diren ondorioetarako. Poliziaren esku-hartzeak dagozkien protokoloetan arautu behar dira. Protokolo horiek publikoak izan behar dute, herritarrentzat ezagunak. Demokratikoki ez da onargarria Ertzaintzak herritarrek eta Legebiltzarreko kideek ezagutu ezin dituzten funtzionamendu-arauak izatea. Gardentasuna, erantzukizuna eta proportzionaltasuna poliziaren funtzionamenduan oinarritzko eskakizunak dira gizarte demokratiko batean.

Para ejemplificar esta situación, puede pensarse en la facilidad con la que se acude a la utilización de medios disuasivos excesivamente peligrosos para la ciudadanía como pelotas de goma, o la arrogancia y pérdida de perspectiva del servicio policial como servicio público.

Esto último se constata con el elevado número de sanciones que se imponen aduciendo falta de respeto o consideración al agente policial (art. 37.4 LOPSC). Esta falta de respeto puede ser aducida por el agente con la única prueba de su palabra. ¿No se debería, en estas situaciones, grabar la intervención que da lugar a la imposición de esa sanción?

Antes de la Ley Mordaza, estos casos se llevaban a los tribunales. Ahora, la sanción la impone la Administración vasca, que el año 2019 ha incoado 995 expedientes administrativos por este motivo. Las actuaciones policiales no son objeto de control una vez producidas. La Administración policial debería tener unos protocolos de intervención donde se concrete tras cada intervención, qué policías han intervenido, quién es el responsable, qué instrumentos se han utilizado, todo debidamente documentado, a los efectos que en las normas se establezcan. Las intervenciones policiales deben estar reguladas en los correspondientes protocolos, que deben ser públicos, accesibles a la ciudadanía, no siendo

aceptable democráticamente que la Ertzaintza tenga normas de funcionamiento que la ciudadanía e, incluso, las personas miembros del Parlamento, no pueda conocer. La transparencia, responsabilidad y proporcionalidad en el funcionamiento de la policía constituyen exigencias básicas en una sociedad democrática.

Si tratamos el otro lado del binomio, los derechos de la ciudadanía, no es necesario un esfuerzo muy cualificado para concluir en la falta de respeto de estos derechos, siendo la Ley Mordaza un ejemplo paradigmático. Las intervenciones policiales en el ejercicio de los derechos de manifestación, de participación política, de la libertad de expresión, de los derechos de los piquetes como parte del derecho a la huelga, de registros, cacheos y solicitudes de identificación indebidas, o de la imposición de sanciones por faltas de respeto o consideración sin garantías para la ciudadanía son muestras de ello.

CARENCIAS DEMOCRÁTICAS

La Ley Orgánica de Protección de la seguridad ciudadana (LOPSC), conocida como Ley Mordaza, ha sido criticada por su contenido y por las intervenciones policiales y judiciales que le han acompañado. La LOPSC ha sido dictada sin tener en cuenta las características de las sociedades democráticas avanzadas. En ellas, los derechos

fundamentales, en general, y el derecho de participación política, en concreto, exigen ser interpretados de tal forma que las libertades públicas sean lo más amplias posibles.

La participación política y sus diversas formas de producción conducen a otros derechos con los que está directamente relacionada. Así sucede con la libertad de expresión, de manifestación, con las múltiples formas en que esta puede producirse. La falta de comunicación de una manifestación no puede ser motivo de disolución. Tampoco pueden utilizarse medios de disolución que disuadan del ejercicio de ese derecho por la violencia que se utiliza por la policía. La negociación colectiva no es tal si no hay derecho de huelga y el libre funcionamiento de piquetes. Estos deberán respetar los derechos de las demás personas, pero no puede limitarse su actuación encajonando su intervención en lugares que no sirven para el cumplimiento de sus legítimos fines como piquetes.

REFORMA PROFUNDA

La seguridad ciudadana, su regulación concreta contenida en la LOPSC, requeriría una reforma profunda, orientada en el respeto de los derechos fundamentales y con una regulación de la intervención policial adecuada a la finalidad en concreto que persiga, transparente, que permita la defensa de la ciudadanía ante los excesos policiales, así como la rendición de cuentas en su funcionamiento.

No parece que las reformas en curso vayan a cumplir estos requerimientos. Las Instituciones públicas vascas también tienen algo que decir en estas cuestiones. Hasta ahora no han desarrollado una política genuina en esta materia. 



Erika Martinez Lizarraga, Goienerreko lehendakaria

Etorkizun bizigarri baterako bidean lagun onak, antolaketa eta kolektibotasuna

Está claro cómo será la transición económica, social y ecológica que tendremos que hacer en el futuro para crear escenarios en los que vivir con dignidad. Para vivir mejor, nos toca aprender a vivir con menos; reforzar y movilizar las redes para no dejar atrás a más gente.

1972an, Erromako Klubak *Hazkundearen mugak* txostena argitaratu zuen. Bertan, giza-jarduerak gure planeta finituan eragiten duen aztarna ekologikoa eta honek izan dezakeen eragina aztertzen zen. Bidenabar, etengabe hazten doan eragina. Ohartarazpena argia zen, gainera: baliabideen erabilera eta kutsadura murriztu ezean, Lurraren baliabideen mugak gaindituko genituela 100 urte pasa baino lehen.

50 urte geroago, klima-aldaketaren negazionismo eta interes pribatuen erruz hamarkada batzuk alferrik galdu ondoren, IPCCren azken txostenak ohartarazi gaitu, ez zaigula aukera askorik geratzen, klima-aldaketaren ondorioak erabat dramatikoak izatea nahi ez badugu.

Egin behar dugun aldaketa handienetako bat gure energia-ereduarena da. Eredu hori krisian dago gaur egun, baina urteak daramatza agortzen ari den seinaleak erakusten.

NOLA IRITSI GARA HONAINO? SAIHESTU ZITEKEEN?

Bada egungo arazo guztiak Errusiak Ukraina inbaditzeari leporatzen dionik. Baina azterketa hori egitea ez da zorrotzegia. Inondik inora. Oso gutxitan konturatzen gara bonbila bat pizte hutsak armiarmasare geopolitiko batera lotzen gaituela, eta handik ihes egitea oso zaila dela. Hala, tximeleta-efektuaren gisara, milaka kilometrora hartutako alde bakarreko erabakien eta superpotentzien interes estrategikoen ondorioz, milioika pertsona zaurgarritasun-arrisku larrian daude. Eta hori guztia gertatzen zen bitartean, ez-ikusiarrena egin dugu, zuzenean-zuzenean eta bete-betea guri eragin digun arte.

Arazoaren muinera jotzen badugu, ikuspegi makroak eta mikroak bereizi ditzakegu. Maila makroan, Hego Euskal Herriaren energia-mendekotasuna %90 ingurukoa da gutxi gora-behera. Elikadura mendekotasunaren parekoa. Gaur egungo sistema kapitalistak

En este contexto, las Comunidades de Energías Renovables se han convertido en alternativas locales, en alternativas descentralizadas, para impulsar un modelo diferente. Esto supone bajar la soberanía y la transición energética a lo testimonial: crear alternativas que, organizando un pueblo o una región, les alejen de las dependencias externas y de los consumos excesivos. Alternativas integrales que conecten también el modelo energético con la brecha social y trabajen contra las desigualdades sociales. Así, no podemos ver estas iniciativas locales como una forma de multiplicar el sistema ni como una herramienta para enriquecer a las grandes empresas. Las comunidades energéticas se basan en la ciudadanía organizada y empoderada, ya que para impulsar cualquier transformación es imprescindible la organización y la colectividad. Una vez más, interconexiones.

harrapari baten modura jokatzeko du: baliabide material zein pertsonalak gero eta mugatuagoak diren garaiotan, (ia) guztiaren gainetik bere gosea asetu nahi du. Sistemaren mugak hausteko prest dago. Herrialde industrializatuenek energia merkearen gainean oinarritu dute beraien eredu ekonomikoa, gasa eta petrolioa erretzeak gure etorkizuna arriskuan jartzen duela kontuan hartu gabe. Jorge Riechmann idazleak adierazi moduan, "nekazaritzaren ekonomia, eguzkiaren energiak elikatutako lurrazaleko ekonomia da; gizarte industrial, aldiz, erregai fosilek mugitutako lurrazpiko ekonomia. Metaforikoki esanda, Iraultza Industrialaren prozesuan, eguzkitik urrundu eta lur azpian sartu zen gure gizartea". Berriro lurrazaleko ekonomiara itzuli beharko dugu.

Baikortasun teknologikoa, hau da, energia-iturri berriei esker egungo kontsumo-maila mantentzeko modua aurkitzea posible zela sinestea, askok begiak estaltzeko erabilitako zapi bat izan da, zetorren olatuaren tamaina ikaragarria ez ikusteko.

Maila mikroan, edozeren truke ondasunak lortzeko helburua besterik ez duen oligopolio bilakatu da merkatu elektrikoa,

sorkuntzaren, banaketaren eta merkaturatzearen zati handi bat gutxi batzuen esku egoteak eragin duena.

Krisi honetara ekarri gaituen beste arrazoi bat, gure poltsikoari dagokionez, prezioa finkatzeko arautua dagoen *merkatu marginalista* izan da. Alegia, energia salerosketen merkaturan azkena sartzen den teknologia-motak, garestiena izateaz aparte, behin-betiko prezioa markatu ohi du aurreko guztientzat. Sistema hau, aurten bereziki, oso kaltegarria izan da kontsumitzaileentzat, energia-sortzaile handiek merkatua manipulatu dezaketelako beren interesen arabera. Gertatu den bezala.

ALTERNATIBAK MARTXAN

Gaur egungo egoeraren aurrean, banakako zein gizarte modura, hauek dira har ditzakegun bideak: ukatzearena, etsitzearena, egokitzearena edo/eta ekintzarena. Goiener-en, lanean dihardugu azken bi bide hauek eraiki, eta bidelagun onak alboan hartuta, elkarrekin pausoak emateko. Adibidez, berriztagarrien arloan REScoop eta Union Renovables (gurea bezalako kooperatibaz osatutako elkarteak); finantza-arloan Coop57 eta Fiare;

eta gertuago etorrita, ekonomia-sozialean REAS eta Olatukoop.

Jakin badakigu klima-aldaketak atzera-bueltarik ez duela, eta horren aurrean, dagoeneko agerikoak diren ondorioetara egokitzea (eta ahal den neurrian egoera are gehiago ez okertzea) beste erremediorik ez zaigula geratzen. Hau da, etorkizun bizigarri baten alde lanean jarduteko aukera eta erantzukizuna dugu.

Testuinguru honetan, Energia Berriztagarrien Komunitateak bestelako eredua bultzatzeko lekuko alternatibak bihurtu zaizkigu, alternatiba deszentralizatuak. Energia burujabetza eta trantsizioa, lekukora jaistea suposatzen du honek: herri edota eskualde bat antolatuz, kanpo dependentzietatik eta gehiegizko kontsumoetatik urrunduko dituzten alternatibak sortzea. Alternatiba integralak, energia eredua gizarte arrakalarekin ere lotuko duena, eta gizarte mailako ezberdintasunen aurka lan egingo duena. Hala, ezin ditugu lekuko ekimen hauek sistema biderkatzeko modu gisa ikusi, ezta enpresa handiak aberasteko tresna gisa ere. Energia komunitateen oinarria herriar antolatuak eta ahalbunduak dira, edozein eraldaketa bultzatzeko ezinbestekoa baita antolaketa eta kolektibotasuna. Berriro ere, interkonexioak.

Ondorioz, argi dago etorkizunean duintasunez bizitzeko agertokiak sortzeko egin beharko dugun trantsizio ekonomiko, sozial eta ekologikoa nolakoa izango den: guk nahiko genukeena baino prozesu arantzatsuagoa eta kaotikoagoa. Hobeto bizitzeko, gutxiagorekin bizitzen ikastea dagokigu; sareak indartu eta mobilizatzea, jende gehiago atzean ez uzteko. [A](#)

“Somos exquisitas”

GURE AUZOAN **BIZI NAHI DUGU!**

Más de **80.000**
viviendas vacías
en Hego Euskal Herria

La **juventud vasca** destina
el 55% de sus ingresos al pago
del alquiler (las mujeres, el 60%)

Desde 2017 los **pisos turísticos**
han subido un 55%
en Hego Euskal Herria



Etxebizitza: Eskubidea ala luxua?

Aitor Murgia ELAko Ikerketa Bulegoko kideak dio aldaketak beharrezkoak direla etxebizitza politiketan, pertsona zaurgarrien beharrei erantzun ahal izateko

ALDA

Etxebizitzak gure gizartean duen garrantzia utzi du begi bistan pandemiak. Bi urte igaro dira COVID-19aren hedapena geldiarazteko etxean konfinatu gintuztenetik, baina denek ez zuten aukera eta baldintza berdinak izan: etxerik gabeko pertsonentzako, etxetik kanporatuak izateko mehatxupear zeudenentzako, edota hipoteka ala alokairua ordaintzeko zailtasunak zituztenentzako ez zen erraza izan. Ezta oso baldintza kaskarreko etxebizitzetan zeudenentzat ere; oinarritzko beharrak asetzeko nahiko lan.

Azken hilabeteotan sistemaren alderik krudelena geratu da agerian. 2021eko irailean, Koldo Arribillaga hil zen Gasteizen, bizitoki egokirik gabe, ezin izan zuelako bihotzeko eritasunari aurre egiteko botikarik hartu;

La renta mensual media de las viviendas libres lleva por encima de los 1.000 euros desde 2018 en la CAPV, mientras que el precio máximo asumible de las personas entre 18 y 44 años es de 509 euros. En el caso de los más jóvenes es de 389 euros. Las personas racializadas tienen dificultades, incluso, para que las inmobiliarias les oferten pisos.

Koldo etxegabetua izan baitzen. Beste kasu bat da Fatimarena: Bilboko kaleetan hil zen urte hasieran, etxerik gabe. Gizarte bazterketaz ari gara, eta zoritxarrez, ez dira kasu bakanak.

1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, 1961eko Europako Gutun Sozialean, Espainiako Konstituzioan, Autonomia estatutuetan zein Hego Euskal Herriko etxebizitza arauetan jasotzen da etxebizitza eskubidea, baina askorentzat arazo nagusienetako bat izaten jarraitzen du.

Hori dela eta, Manu Robles-Arangiz Fundazioak **Aitor Murgia** ekonomistak osatutako *Etxebizitzaren auzia Hego Euskal Herrian: diagnostikoa eta alternatibak* txostena argitaratu du; sindikatuaren etxebizitzaren inguruko sozializazio kanpainaren oinarria da txosten hori. Egoeraren argazkia osatu du bertan Murgiak, Hego Euskal Herriko arauak eta politikak aztertu ditu, eta auzi horren inguruan sortutako gizarte mugimenduak zein erakunde publikoen jarrera pasiboa plazaratu. Azkenik, etxebizitzaren egoera hobetzeko proposamenak ere jasotzen ditu txostenak.

»Zein da Hego Euskal Herriko etxebizitzaren arazoaren muina?

Aitor Murgia: Eskubide gisa beharrean, balio ekonomiko gisa ulertzen da etxebizitza. Eta eskubide



unibertsala izan beharko lukeena merkatuaren eskuetan uzten denean, jakin badakigu zeintzuk diren ondorioak. Osasunarekin, Hezkuntzarekin edota Gizarte zerbitzuekin antzekoa gertatzen da: merkatuak ez ditu baliabideak modu eraginkor eta orekatuan banatzen, eta eskariaren eta eskaintzaren arteko desorekak beti egiten du alde berera balantza. Dutenek jasotzen dute etekin gehien, eta beharrea daudenek galdu. Eskubide unibertsal bat ortodoxia ekonomikoarekin uztartzen denean, pribilegioa bihurtzen baita.

Etxebizitzaren kasuan, desoreka areagotu egin da higiezinaren arloko lobbyen presioen ondorioz, eta eraikuntza berria eta merkatu libreko salerosketak gailendu dira, sektorearentzat etekin handiagoa dakarrelako horrek, alokairuak baino.

Bide horretan, gakoa izan zen 1985eko Boyer dekretua. Halako etxebizitzaren salmenta bultzatu zuen, salerosketa finantzatzuz eta etxebizitza publikoa agortuz. Esan daiteke etxebizitza politikak teilatutik eraikitzen hasi zirela.

» Eta horren guztiaren ondorioa zein da?

Ondorioa da Hego Euskal Herriko etxebizitzaren %88 jabetzakoa dela, eta %12 soilik dago alokairuan. Europako batez bestekoa %13koa da, eta Alemanian, esaterako, ia erdia dago alokairuan. Hemengo kopuruak ez datoz bat jendearen beharrekin, bereziki gazteen kasuan, gero eta jende gehiagok nahiago baitu alokairuan bizi, etxea erosi baino.

» Etxea erostea ez baitago denen esku...

Halaxe da. 2008ko krisiak aurrezki kutxen bankarizazioa ekarri zuen, eta etekinek itsututa hipotekak nolanahi banatu zituztenez, finantza sistema erreskatatu behar izan zen. Ondorioz, hipotekak eskuratzeko baldintzak asko zorrotzu dira; esaterako, etxebizitzaren salneurriaren %20 aurrezki gisa eduki behar da hipoteka eskatzeko, eta lan eta diru sarrera egonkorra izan. Beraz, baldintza horietatik kanpo geratzen dira pertsona prekarioenak: emakumeak, migranteak eta gazteak, bereziki.

Jende multzo horrentzat alokairua da etxebizitza bat eskuratzeko bide bakarra. Baina, esan bezala, eskaintza oso murrizta da, eta eskaria gero eta handiagoa denez, alokairuek gora eta gora egiten dute. Pentsa, EAEko etxebizitza libreko hilabeteko batez besteko errenta 1.000 euro baino handiagoa da 2018. urteaz geroztik, eta aldi berean, 18 eta 44 urteko pertsonentzako etxebizitzara bideratu dezaketen batzuek besteko kopurua 509 eurokoa da. Soldata



Desde 2013, cuando se empezaron a recabar estos datos, hasta 2021, se han producido un total de 12.500 desahucios en Hego Euskal Herria: es decir, 4 al día. Además, 120.000 personas conviven bajo el fantasma del desahucio, con impagos o atrasos en el pago del alquiler, hipoteca o recibos.

arrakalak are zartadura handiagoa sortzen du, gainera, sei hilabeteko alokairuko aldearekin, eta migratzaileen kasuan, okerrago, etxe agentziek oso etxe gutxi eskaintzen dizkietelako.

» Etxebizitza turistikoaren ugaritzeak zenbateraino eragin du alokairuen garestitzean?

Alokairuaren eskaintza murrizta denez, erabilera turistikorako etxebizitzek egoera are gehiago estutu dute. Airbnb gisako plataformak jaun eta jabe dira zenbait auzotan, eta Blackstone edo Azora bezalako funts handiek etxebizitza eraikin osoak eskuratzen dituzte bertako bizilagunak kanporatuta, errentagarriagoa delako. Erakunde publikoen onespenezarekin gertatzen ari da hori, gainera. Eneko Goia Donostiako alkateak esan zuen norbere auzoan zahartu nahi izatea 'gustu finekoa' izatea dela. Alternatiba periferietako zubi azpitan egon liteke, nonbait.

“Las subvenciones o las ayudas no son la solución. Para garantizar el derecho a la vivienda hace falta un parque público de viviendas en alquiler con precios máximos. En este sentido, las Viviendas de Protección Oficial (VPOs) deberían ser adjudicadas en régimen de alquiler y no de propiedad”.

» **Arazo horiei aurreko krisietakoak batu zaizkie, hala nola, etxegabetzeak.**

Etxegabetzeak ohikoak izaten jarraitzen dute. 2013. urtetik, datuak jasotzen hasi zirenetik, iaz arte, 12.500 etxegabetze egin dira. Hau da, lau eguneko. Eta beste 120.000 pertsona daude etxea galtzeko zorian, alokairua ezin ordaindu edo etxea ordaintzeko atzerapenak dituztelako, adibidez. Eta bitartean, milaka etxe hutsik. Zehazki, 80.000 etxebizitza daudela hutsik, arazoari aurre egiteko baliagarriak izan daitezkeenak. Horretarako, ordea, erakunde publikoek bestelako politikak sustatu behar dituzte etxe horiek prezio txikiagoetan aloka daitezen. Kanonarekin ez da aski.

» **Etxebizitza edukitzeko zailtasunak eta ezintasunak gizarte arazo larria bihurtu dira. Zein balorazio egiten duzu arlo horretako politika publikoen inguruan?**

Orain arteko lege eta etxebizitza politikek ez dute arazoa konpondu. Legeek eskubide subjektibo gisa aipatzen dute etxebizitzarena, baina ez da

benetan eskubide hori bermatzen; ez Nafarroan, ez EAEn. Era berean, ez dago inolako araurik salneurria eta alokairuen prezioa mugatzeko. Eskaintzen den ia neurri bakarra da diru laguntza txiki bat, eskasegia dena merkatu librean benetan etxebizitza duin bat eskuratzeko.

Aurrekontuetan ere oso txikiak dira etxebizitzara bideratutako partidak. Barne Produktu Gordinaren %0,2 da EAEn, eta Nafarroan %0,3.

Diru laguntzak ez dira konponbidea. Etxebizitzaren eskubidea bermatzeko, etxebizitza publikoa behar da, alokairu neurtuekin.

Era berean, beste herrialdeekin konparatuta, hemen oso eskasa da etxebizitza publikoaren eskaintza. Bereziki babestutako alokairuarena.

Aipatzekoa ere bada etxebizitza politikak adosteko ez dagoela inolako parte hartzerik. Kolektibo zaurgarrienak entzun beharko liriateke, eta erabakiak hartu horien beharren arabera, bizi dugun drama sozialari erantzun nahi bada.

» **Zer egin dezakete sindikatuek, gizarte eragileek, hiritarrek...?**

Etxebizitza politiken eredua aldatu behar da. ELAk eta beste gizarte eragileek urteak daramatzagu hori eskatzen: jabetzaren ordez, alokairua lehenetsiko duen etxebizitza eredua behar dugu. Horregatik, babes sozialeko etxebizitza guztiak alokairuan egon beharko dute. Aldi berean, hutsik dauden bizitokien alokairua sustatu behar da, eta alokairuaren prezioa mugatzeko lege bat. Denok izan dezagun aukera etxebizitza duin bat eskuratzeko.

Horregatik, beharrezkoa da turismorako etxebizitza mugatzea. Baita funts handien etxebizitza erosketa masiboak ere. Espekulaziorako besterik ez baitira halako erosketak. Legeak ere etxegabetzeak eragotzi behar ditu, eta eskubidea defendatu; ez soilik diru laguntzen bidez. Hori guztia egin ahal izateko, baliabide publikoak beharko dira.

ELAk lanean jarraituko du etxebizitza ez dadin 'gustu fineko' pribilegioa izan, benetako eskubidea baizik. Mugimendu sozialak bultzatu behar ditugu, gure proposamenak sozializatu, eta beste eredu baten alde lanean ari diren erakundeak saretu. Aldi berean, uste dut funtsen edo bankuen etxebizitza hutsen okupazioa edota desobedientzia zibila sustatu behar dela, baita turismorako bideratutako bizitokien kasuan ere, arazoa ikusarazteko eta erantzukizun politikoak eskatzeko. **A**



Iparralde

Relato de una victoria en los alquileres

El movimiento **Alda** ha logrado situar en la agenda social y política de Iparralde el problema de los inmuebles turísticos tipo Airbnb y forzar una medida de compensación. Ésta obliga a todo propietario que quiera transformar una vivienda de alquiler en alquiler turístico a adquirir en el mismo municipio locales de superficie equivalente no destinados a vivienda (oficinas...) y convertirlos en viviendas de alquiler ordinario

TXETX ETCHEVERRY

El problema...

El 16 de junio de 2021, la militancia del movimiento **Alda** ofreció una rueda de prensa en un lugar poco común. Convirtieron un apartamento Airbnb de Petit Bayonne en cuartel general de una campaña con el eslogan *Alojarse, no especular*. Ese apartamento estaba alquilado pocos meses antes por una joven pareja de trabajadores, y fue después transformado en un Airbnb.

Alda, que defiende a las clases populares, presentó allí el resultado de una encuesta que acababa de hacer. Las cifras eran increíbles: entre 6.000 ó 7.000 viviendas habían pasado de estar alquiladas a la población a constituirse en pisos turísticos ¡y eso solo en los últimos

años! Una cifra enorme comparada con el número de viviendas privadas en alquiler de Iparralde (41.670 ¡en 2017!).

El 35% de la población de Iparralde no es propietaria de su vivienda sino que la alquila. Este suele ser el caso de las clases populares, una parte de la cual es arrendataria en el parque de viviendas sociales (con alquileres moderados); un parque infradotado pues solo responde a una de cada 6,5 solicitudes.

La *hemorragia* que provocan los inmuebles turísticos tipo Airbnb

supone el desalojo de las clases populares lejos de sus lugares de trabajo, con las consecuencias sociales, humanas y ecológicas que ello conlleva, incluido el abandono del País Vasco.

El impacto del estudio realizado por **Alda** y la rueda de prensa fue muy importante: población, medios y electos tomaron conciencia de un problema de suma importancia que no había sido identificado y que no estaba en la agenda ni de las autoridades ni de las organizaciones sociales.

Airbnb motako higiezin turistikoek eragiten duten «hemorragia» dela eta, klase herrikoiak beren lantokietatik urrun uzten dira, horrek dakartzan ondorio sozial, gizatiar eta ekologikoekin, Euskal Herria uztea barne.



La solución...

El 7 de julio de 2021, 30 militantes de **Alda** conformaron una hilera de tiendas de campaña entre la sede de la Comunidad de Aglomeración del País Vasco (CAPB) en Urruña y la sede social de la Sociedad Popliday, filial de la empresa Carmen Inmobiliér. Sólo esta sociedad tiene alquiladas 750 viviendas durante todo el año como residencias turísticas para estancias de corta duración. Alda interpeló a la CAPB para que estas viviendas fuesen alquiladas para la población local, especialmente para las clases populares, para poder continuar viviendo en Euskal Herria. **Alda** pidió una reunión con el Presidente de la CAPB y le propuso una medida: la compensación. Ésta obliga a todo propietario que quiera transformar una vivienda de alquiler en alquiler turístico a adquirir en el mismo municipio locales de superficie equivalente, no destinados a vivienda (oficinas...) y convertirlos en viviendas de alquiler ordinario, no turístico. Esta medida supone, a menudo, que la operación pierda interés financiero y, así, parar la hemorragia del parque de alquileres. Pero había un problema: esta medida se aplica, desde 2018, solo en las ciudades de más de 200.000 habitantes.

Alda había redactado un memorando que demuestra que la medida podía implementarse en zonas inmobiliariamente tensionadas con un continuo urbano de más de 50.000 habitantes, como es el caso de los 24 municipios de la costa vasca, donde reside la mayoría de la población de Iparralde. La CAPB remitió el trabajo a sus servicios jurídicos, que lo validaron, y dieron una cita al grupo para el 20 de julio.



ALDA MUGIMENDUA

Manu Robles-Arangiz Fundazioko militanteek sortu zuten Alda. ELA 2005etik dago Ipar Euskal Herrian fundazio honen bitartez. Mugimendua herri klaseen egoera eta beharrak aztertu ziren prozesu luze baten ondoren eratu zen. Helburua gizartearen sektore ahulenak, isolatuenak eta babesgabeenak defendatzeko eta antolatzeko tresna bat sortzea da.

Mugimendu berria 2020ko urrian abiatu zen, batzar orokor batean. Bertan izan zen ELAko ordezkaritza bat, Amaia Muñoa, garai hartan Batzorde Eragilearen Iparraldeko arduraduna, eta Unai Oñederra, Manu Robles-Arangiz Fundazioko zuzendaria buru zirela.

Urte eta erdian bakarrik, mugimenduak ospe handia lortu du eta bere eraginkortasuna erakutsi du garaipen zehatzekin eta pertsona askoren eguneroko bizitza eraldatuz beren ingurunean, lan-mundutik kanpo. Etorkizun hurbilean Aldaren jardueraren eremua honako gai hauetara ere zabalduko da: auzoa, enplegua lortzea, garraioa, eskolak, administrazioa, bankuak eta zerbitzuak, kontsumoa, osasuna edo ingurumena.

Jokoan dagoena funtsezkoa da: herri sektoreek Euskal Herri solidario, subirano eta iraunkor baten eraikuntzan bete-betean parte hartzea lortu nahi da. Haiek gabe egiteak proiektua bera desitxuratu eta ahuldu egingo luke. Aldak, aldiz, proiektu abertzalea ikuspegi aurrerakoi, solidario, integratzaile eta adierazgarriago batean kokatu nahi du. ▢



Ese día, la delegación de **Alda** mantuvo una larga reunión con el presidente de la CAPB (Jean-René Etchegaray), el vicepresidente encargado de Turismo (Daniel Olçomendy), el vicepresidente de Hábitat y vivienda (Roland Hirigoyen), el asesor de Ordenación del territorio (Philippe Aramendi) y varios jefes de servicios técnicos concernidos. La reunión concluyó con el compromiso formal de los representantes de la CAPB de someter, lo antes posible, a debate y votación de los 232 representantes electos del Consejo Comunitario de la CAPB un nuevo reglamento que estableciese la medida de la compensación.

Del 20 de julio al 5 de marzo de 2022

Comenzó entonces un largo proceso de trabajo y debate entre los 24 municipios interesados. Se realizaron no menos de 23 reuniones entre funcionarios electos o responsables de servicios. Se consideraron 3 escenarios con niveles de ambición y efectividad previsible diferentes.

Al mismo tiempo, la presión social fue *in crescendo*. La CAPB encargó a la agencia de urbanismo Audap la realización de un estudio para hacer un diagnóstico preciso e incontestable de la situación. Sus resultados dejaron huella: ieran 11.000 viviendas las que se habían transformado en residencias turísticas permanentes del tipo Airbnb! **Alda** ya había precisado que solo daba las cifras que había podido demostrar con sus medios militantes, pero que la realidad sería aún más grave. El estudio de Audap mostró un aumento del 130% solo de 2016 a 2020. También muestra que esta práctica ha elevado el precio de la vivienda.

A partir de ahí, **Alda** fue entregando memorandos técnicos a la CAPB, a los servicios técnicos y a los 24 alcaldes de la zona de tensión inmobiliaria, notas detalladas que arrojaron luz sobre otros aspectos del problema. También hacía recomendaciones para que la futura normativa fuese ineludible y lo más efectiva posible.

El movimiento fue, asimismo, realizando ocupaciones de apartamentos que evidenciaron los aspectos más condenables del fenómeno Airbnb, haciéndolo cada vez más impopular a los ojos de la población y los electos.

Estas acciones denunciaron, por ejemplo, la violación sistemática de la legalidad vigente por parte de Airbnb. **Alda** demostró que la mayoría de los inmuebles que anuncia no están registrados en los ayuntamientos, eludiendo así cualquier control, autorización y el pago de impuestos. **Alda**, junto a otros colectivos del Estado francés, realizó también una rueda de prensa frente a la sede nacional de Airbnb en París y se reunió con el gabinete del Ministro de Vivienda.

Finalmente, la multinacional Airbnb terminó doblegándose ante la determinación de esta campaña y aceptó regularizar sus inmuebles, primero en Baiona y Angelu, y luego en Biarritz y muchos otros municipios de la costa vasca, lo que le supuso la pérdida de miles de anuncios. **Alda** consiguió alquilar iel ayuntamiento de Angelu! en la plataforma Airbnb. Denunció y

demonstró así la falta de control en los registros municipales. Se ocupó también un apartamento cuyo inquilino fue desalojado por un comprador parisino que pidió prestado dinero para convertirlo en su segunda vivienda, devolviendo el préstamo gracias al alquiler de Airbnb. Cada acción tuvo un efecto pedagógico que permitió comprender, poco a poco, los diferentes aspectos y el meollo del problema.

Al mismo tiempo, **Alda** y una treintena de organizaciones de Iparralde lideraron una campaña de movilización por el derecho a vivir y a la vivienda en el país. Esta campaña culminó con una multitudinaria manifestación en Baiona el 20 de noviembre. Participaron 8.000 personas, incluido gran parte del ejecutivo de la CAPB. Esta movilización ha sido la mayor sobre este tema de los últimos 25 años en Francia, donde la vivienda nunca ha

logrado movilizar multitudes, al contrario que la seguridad social o las pensiones, y ello a pesar de que constituye la principal partida de gasto de los hogares.

Una victoria decisiva

El 5 de marzo de 2022 se presentó al Consejo Comunitario de la CAPB la versión más ambiciosa y restrictiva de las tres versiones del reglamento sobre la Compensación. Tras el debate, el resultado de la votación fue demoledor: ¡173 votos a favor y 8 en contra! La CAPB se convierte, de esta manera, en el primer territorio de Francia que, sin ser una metrópoli de más de 200.000 habitantes, ha establecido la compensación. **Alda** aplaudió una victoria tanto social (ya que protege la vivienda de las clases populares) como ecológica, porque buena parte de las 11.000 viviendas podrán recuperarse sin

hormigonar ni artificializar nuevos suelos.

El reglamento entrará en vigor el 1 de junio de 2022, pero su impacto ha comenzado. Los bancos ya han dejado de prestar dinero a los compradores que pensaban reembolsar la compra con los ingresos de Airbnb. Y nadie se siente tentado a comprar un alojamiento de alquiler ordinario para convertirlo en un Airbnb. Si extrapolamos las tendencias desde 2016, podemos estimar que la votación del 5 de marzo permite evitar la transformación de 20.000 nuevas viviendas de alquiler en alojamientos turísticos permanentes.

Podemos cambiar las cosas

En poco más de un año de existencia, el nuevo movimiento **Alda** ha demostrado una eficacia extraordinaria, desmintiendo así la resignación dominante, el “no vale la pena, nada cambiará nunca”. Organizándonos colectivamente, con visión estratégica y determinación sí, podemos cambiar las cosas!

Alda está trabajando en todos los frentes para luchar contra la especulación y la crisis inmobiliaria: por la limitación reforzada de los alquileres, contra los contratos de alquiler fraudulentos que precarizan la situación de los inquilinos, contra los desahucios para la venta, contra los retrasos en la obtención de vivienda social que se alargan, contra la insalubridad de muchas viviendas... **Alda** se ha convertido rápidamente en un verdadero “sindicato de inquilinos”.

El movimiento ya ha anunciado públicamente que se presentará en noviembre a las elecciones de representantes de los inquilinos de vivienda social. **A**

Alda fronte guztietan ari da lanean
espekulazioaren eta higiezinaren krisiaren aurka
borrokatzeko. Berehala bihurtu da maizterren
benetako sindikatu.



A man with a beard and short dark hair, wearing a black hooded jacket, is sitting on a stone wall. He is looking directly at the camera with a serious expression. The background is a grey stone wall. To the right, a portion of another person wearing a blue jacket is visible.

Oinatz Bengoetxea eta Ier Pilotan banaka borrokan

Testua: IVÁN GIMÉNEZ

Argazkiak: IDOIA ZABALETA (FOKU)



ra Agirre a, taldean

Iera Agirre Iturriaga eta Oinatz Bengoetxea Berasategi pilotariak dira,

Leitzakoak eta belaunaldi berekoak. Ikusten denez, ezaugarri komun asko dauzkate. Adibidez, kirolari profesionalak direla esan dezakegu, baina ñabardura esanguratsu batekin: Oinatzek aurtan erretiroa hartuko du 37 urterekin, eta Iera, aldiz, bere karrera profesionalaren hastapenetan dago, 34 urte baditu ere.

Honen azalpena ere begi-bistan dago: Oinatz gizona da eta Iera, aldiz, emakumea. Batak, kirolean dena eginda, atzera begiratzen du "pribilegiatua" izan dela aitortzeko. Besteak: "Bizitza osoa borrokatu ostean, hemen jarraitzen dugu: goizez lanean, arratsaldean entrenatzen eta kluba antolatzen, gure atzetik datozen neskei bide profesionala irekitzeko".

Irakurketa hori ere biek partekatzen dute, eta elkarrenganako miresmena agerian geratzen da elkarrizketa osoan. Leitzako plaza eszenatoki ederra da pilota eta bizitzari buruz hitz egiteko, dozenaka umeek pilotan jokatzen duten bitartean. Herri bizia da eta Oinatz eta Ieraren aurpegietan horren isla nabaritzen da. Oinatz semea hortik dabil, endredatzen. Ierarena, aldiz, Lekunberrin dago, han bizi direlako.

Leitza pilotarien herria ere bada, eta ez bakarrik elkarrizketa honetan agertzen direnei esker: Juan Mari Bengoetxea (Bengoetxea III, Oinatz osaba) banakako txapelduna izan zen, Abel Barriola ondoren... Leitzatik kilometro gutxira Goizueta (Aimar Olaizola) eta Eratsun daude (Retegitarren herria).

»Haur asko herriko frontoian jokatzen ikusten dira, baina ez dago eskuz aritzen den inor.



Guztiak raketarekin... (Oinatzek eta Ierak barre egiten dute)

Iera Agirre (I.A.): Bueno, garrantzitsuena da kirolean ari direla, eta pilotarekin. Denbora daukate eskuz jokatzeko hasteko. Hain justu, gure garaian kontrakoa gertatu zitzaigun ordurako neskei...

Oinatz Bengoetxea (O.B.): Bai, mutilok arazorik jabe jarraitzen genuen eskuz jokatzeko, baina neskei esaten zieten palara pasatzeko... Guri inoiz ez ziguten galdetzen pilota edo kirola zergatik gustatzen zitzaigun, baina neskei bai. Beti galderei erantzuten ibili behar izan dira...

I.A.: Bai, 13 urterekin, egun batetik bestera, eskuz jokatzeari utzi behar izan genion, orduko argudioekin: eskuak hondatuko zitzaizkigula, ez zela neskentzako kirola; gainera oso gutxi ginen eta ez genuen elkar ezagutzen herriz herri jokatzeko, adibidez... Beraz, palan hasi ginen eta orain dela gutxi arte ezin izan dugu berriro eskuz jokatu.

»Eta nola hasi zarete berriro antolatzen?

I.A.: Ez da batere erraza 15 urte utzi ondoren berriro eskuz jokatzeko hastea. Hala ere, iaz Ados Pilota elkarte osatu genuen (Maite Ruiz de Larramendi, Ohiana Orbegoza eta beste pilotariekin batera), helburu batekin: neskentzako bide profesionala irekitzea. Egun gure eskolan 25 pilotari daukagu (6 urteko neskak batetik hasita), eta besteok lehiaketa profesionalean aritzen gara.

»Pilotaren mundu profesionala ez da erraza. Hor daude historikoki agindu duten enpresak, oso modu autoritarioan...

I.A.: Bai, baina gurea kooperatiba modukoa da. Pilotariok gure bizitza profesionala gidatzen dugu, horrelako enpresarik gabe. Dirua badago, oraindik gutxi bada ere, pilotariengana bideratu behar da. Eta, hori lortzeko, enpresa tradizionalekin ezin dugu kontatu... Eredua aldatu nahi dugu: sos bakoitza erabiltzen da lan baldintzak hobetzeko eta entrenamenduen baliabideak garatzeko. Ez dugu egitura piramidala sortu nahi. Pilotariok badakigu zer behar dugun eta nola antolatu.

O.B.: Guk badaukagu zer kontatu enpresei buruz. Pilotariok beti kexu ibili gara enpresa historikoen kontra (Unidas, Eskulari, Asegarce eta abar). Azken finean, kirolek kanpo dauden enpresak bezalakoak dira: euren etekinak bilatzen dituzte, eta kitto. Enpresen



jokaera horrek gure kirola maitatzen dutenengan kontraesanak sortzen ditu.

»Tira, urte askotan, pilotariak banan banan joan dira enpresekin negoziatzera. Horrek ez zuen enpresen alde jokatzeko?

O.B.: Bai, inolako zalantzarik gabe. Beti entzun dugu: "Bilduko bazinete, asko lortuko zenukete". Bai, egia da, baina beti egon dira izarrak, aski irabazten zutenak eta eroso zeuden... Eta beste aldetik, batzuei kontratua bukatzen zitzaizen momentu delikatu batean eta beste batzuk kontratu berria sinatuta zeukaten... Beraz, egoera ezberdinean dauden profesionalak borroka baterako biltzea oso zaila izan da beti.

I.A.: Baina azkenean, iaz lortu zenuten. Hor dago egin zenuten greba. Gatazka hori mugarri bezala geratuko da. Agian enpresak konturatu ziren hemendik aurrera ezingo dutela nahi dutena egin...

»Kolektiboaren indarraren bi adibide ezberdin zarete: kooperatiba moduan emakumeen kasuan, eta enpresa eta langileen arteko gatazka gizonezko pilota profesionalean...

I.A.: Bai, ez genuen aurretik pentsatu, baina egia da. Kolektiboak garrantzi izugarria du. Guk beste eredu

bat sortu nahi dugu. Gainera, gure bizitzan pairatu dugu isolamendu ikaragarria: neska pilotari bat bere herrian bakarrik... Eta orain bildu gara zerbait berria sortzeko. Hainbat urte pasa ditugu zentimo bakar bat ikusi gabe, gure gastu guztiak gure gain hartuz... Orain hori dena aldatu nahi dugu.

O.B.: Gure kasuan, kolektiboak askoz indar gehiago dauka, baina historikoki gure lan harremanak oso banakoak izan dira. Figurak inplikatu behar dira, bestela... Eta enpresek hori aprobetxatu dute euren onerako. Hala ere, azken greban bildu ginen bidegabekeriaren eta errespetu faltaren aurka borrokatzeko. Eta zerbait lortu izan dugu. Ez gara negozioaren nagusiak, baina indarra daukagu.

»Diruarekin jarraituz, hor daude apostuak, euskal kirolen ezinbesteko elementua. Emakumeen partidetan ere badaude?

I.A.: Ez, ez...Eta gainera, ez zaigu hori iritsiko. Orokorrean, apustuen kopurua asko jaitsi da.

O.B.: Bai, apustuak gero eta pisu gutxiago daukate. 2008ko krisitik hona, askoz diru gutxiago mugitzen da. Asko nabaritzen da.

»Pilotaren (eta ez bakarrik, eskuz, baizik eta bereziki erremintan) ardatza izatetik, albo batean egotera igaro dira apostuak, beraz...

O.B.: Erabat. Azken urtetan, pilotaren biziraupenaren ardatza telebista da.

»Pilota telebistan ez zen 2008an hasi...

O.B.: Ez, ez, lehenagotik dator. Adibide bat jartzearen, Asegarce sartu zenean, eta Titin figura bihurtu zenean, 90ko hamarkadan, hau guztia aldatzen hasi zen. Pilota modernizatu zen orduan, baina ez bakarrik zentzu ekonomiko batean, baita jokatzeko moduan ere...

»Hain garrantzitsua zen Titin?

I.A.: Bai, nire pilotarik kuttunena zen, nire erreferentea. Asko gustatzen zitzaidan bere estiloa, nola jokatzeko zuten. Oso gustokoa nuen, nola sartzen zen airez. Titinek iraultza ekarri zuen pilotara.

O.B.: Bai, lerarekin bat nator. Titinek kirol-iraultza ekarri zuen, enpresak hasi ziren euren artean lehiatzen pilotariak fitxatzeko... Gero beste iraultzak egon dira: Irujok fisikoki jauzi bat suposatu zuen... Eta nik gogoratu nahi dut Mikel Goñiren figura: jende

gazte eta berria erakarri zuen gurera. Oso garrantzitsua zen Mikel, pilotaren iraultza soziala sortu zuela esan dezakegu.

»Zer moduz Mikel Goñirekin? Berarekin jokatu duzu orain dela gutxi...

O.B.: Bai, pasa den otsailean Hernanin elkarrekin jokatu genuen partidua benefiko bat, eta oso gustura aritu ginen.

»Frontoia eta jaia, modan dagoen plana...

(Biek barre egiten dute).

I.A.: Bai, oso ongi dago jende gaztea frontoietan ikustea, neskak barne. Orain badiirudi frontoiek berreskuratu dutela pandemia aurretik zeukaten publikoaren kopurua, batez ere Labriten. Iruñeko frontoia festa bat da. Lagunekin bazkaldu Iruñeko Alde Zaharrean, eta gero pilotara. Despedidak eta guzti...





Agian beste frontoiek ez dute oraindik lehengo maila berreskuratu...

O.B.: Ez, Labrit koska bat gorago dago momentuz. Frontoi guztiek ez dute martxa berdina berreskuratu.

»Zein da zuen frontoirik kuttunena?

O.B.: Hau, Leitzako plaza. Hemen jokatzen hasi nintzelako. Baina maila profesionalean, Labrit, dudarik gabe, xarma berezia dauka.

I.A.: Bai, Labrit. Gainera, nire kirol bizitzan dudan oroitzapen politena bertan daukat, 2019ko uztailaren 12an. Sanferminetako finala zen, eta frontoia bete-beteta zegoen. Pentsa, 200 lagun kanpoan geratu ziren. Izugarria zen, oso hunkigarria. Gainera, irabazi nuen Ohiana Orbegozorekin batera.

»Harmailetako giro ona pilotarien artean ere bada?

O.B.: Bai, gehienak lagunak gara, oso gertukoak eta urtean zehar partidu askotan jokatzen dugu elkarrekin. Adibidez, beste kiroletan ez bezala, pilotan arerioak aldageletan elkarrekin gaude.

IERA AGIRRE

“Toda la vida peleando y aquí seguimos: trabajando por la mañana y entrenando por la tarde; todo por abrir camino a las pelotaris que vienen detrás”.

“La chicas de ahora tienen derecho a ser lo que quieran, pelotaris también; que no les pase lo que a nosotras cuando éramos jóvenes”.

“El colectivo tiene una fuerza impresionante; queremos otro modelo para la pelota profesional, más cooperativo y menos empresarial”.

“Titín era mi referente; él trajo la revolución a la pelota”.

Horrek gure kirola ezberdina dela erakusten du. Hala ere, horretan ere enpresek muturra sartu nahi zuten aldagelak bereizi nahian, agian seriotasun puntu bat ematearren edo beste kirol profesionalean egiten den bezala... Ez dakit, ez zitzaien ongi atera.

I.A.: Gurean are nabariagoa da... Begira, batzuetan ados jartzen gara umeak zaintzera jokatzen edo entrenatzen ari garen bitartean. Azkenean, familia handi bat gara, hainbeste ordu elkarrekin pasatu ondoren... Hori bai, oso ongi bereizten dugu noiz gauden lehian eta noiz kanpoan. Kantxan bagaude, sen lehiakorra pizten zaigu, errukirik gabe. Aldiz, partidua bukatuta, lagunak gaude.

O.B.: Gizonezkoetan antzekoa da. Gainera, norberak bere hurbileko jendea frontoira eramaten du, eta harreman politak sortzen dira. Giro ona hedatzen da, pilotazale guztien artean... Beste kiroletan ez da hori gertatzen, salbuespen gutxi batzuk daude, agian errugbia, adibidez.

»Aurrera begira orain. Zeintzuk dira zuen planak, pilotari dagokionez?

I.A.: Pauso txikiak ematen ari gara profesionaltasunaren baldintzak bermatzeko. Borrokan

jarraitu behar dugu. Oraingo neskei bidea ireki nahi diegu, nahi duten kirola egiteko aukerarik ez galtzeko. Nahi dutena izateko eskubidea dute, guk gaztetan izan ez genuena. Bakar-bakarrik geunden orduan, eta lortu behar dugu neska bat bakarrik sentitu ez dadila.

O.B.: Nire azken agurra prestatzen ari naiz. Hemen, urrian, Leitzako plazako frontoian agur esango dut 20 urte profesionaletan aritu ondoren, eta egun ahalik eta politena ateratzea nahi dut. Aurretik, hortik ibiliko naiz, partiduak jokatzen. Adibidez, udan Mexikon eta Kalifornian jokatuko dugu. Ilusio handia egiten dit bidaia horrek.

»**Mexikon Javier Marín ‘Manos Locas’ pilotariarekin elkartuko zara? (2002an Nafarroan jokatu zen Munduko Txapelketaren finala irabazi zion Oinatzek mexikarrari?)**

O.B.: Ez dakit hortik ibiliko den. Ez legoke gaizki...

»**Eta pilota utzi ondoren, zer?**

O.B.: Lasai nago, proiektu bat edo beste buruan bueltaka dauzkat. Egia da erretiratu naizela baina ezin dut jubilatatu... Nahiko nuke, baina... 

OINATZ BENGOTXEA

“La pelota es diferente, hay un ambiente más sano; hasta los rivales nos cambiamos en el mismo vestuario”.

“Se puede decir que Titín revolucionó la pelota por dentro, y Mikel Goñi, por fuera; fue un fenómeno social”.

“En la última huelga, por primera vez, nos unimos contra la injusticia. Y algo conseguimos: ahora nos tendrán en cuenta”.

“Me quiero despedir en octubre, aquí, en la plaza de Leitza, pero antes jugaré en México y en California”.



Oinatz Bengoetxea Berasategi (Leitza, 1984)

Competitivo y solidario

IVÁN GIMÉNEZ



Que Oinatz Bengoetxea haya sido pelotari profesional durante 20 años no es ninguna sorpresa: sus tíos Juan Mari (Bengoetxea III) y Miguel (Bengoetxea IV) ya ganaron *txapelas* a finales de los 70 y principios de los 80, y su primo Aitor (Bengoetxea V) también fue profesional. “La verdad es que empecé de muy crío, aquí en Leitza, y ha sido un camino muy natural hasta llegar a profesionales”, recuerda Oinatz (Bengoetxea VI). Con esa honestidad tan espontánea, admite: “Me siento un privilegiado”, aunque lera le corrige: “Bueno, bueno, que te lo has peleado”. Y es verdad.

Desde aquella final en aficionados del Mundial de Navarra de 2002 (campeón mundial en mano individual frente al mexicano Javier Marín ‘Manos Locas’), Oinatz fue subiendo peldaños poco a poco hasta ganar cuatro *txapelas* absolutas (dos manomanistas, un Cuatro y Medio y un Parejas). Si hay un partido que recuerda especialmente fue aquella final mano a mano de 2008 en el Atano donostiarra. “Hombre, aquello es insuperable: contra Abel Barriola, también de Leitza, y encima ganar...”. No hacen falta más palabras.

En todo caso, tanto en lo deportivo como en su reflexión personal, Oinatz ha ido más allá de lo habitual para un pelotari. Sin tener el poderío físico de Irujo o Beloki, ni la *magia* de Aimar Olaizola, Bengoetxea VI supo mantener durante años una igualdad cerrada contra rivales que siempre eran favoritos. Pero Oinatz muchas veces les ganaba, casi siempre contra pronóstico.

Y con un pie dentro y otro fuera del frontón, también ha sido un puntal en la lucha por los derechos laborales de los pelotaris. Cuando convocaron huelga frente a la empresa Baiko en octubre de 2020, en protesta por el despido de varios compañeros y contra el recorte salarial, Oinatz estuvo en primera línea.

Fue la única figura que se puso al lado de los pelotaris más humildes y más débiles frente al poder empresarial: “Lo volvería a hacer, sin duda”. **A**

Iera Agirre Iturriaga (Leitza, 1987)

Toda la vida peleando

I.G.

A sus 34 años, Iera mantiene una ilusión juvenil y un brillo en los ojos que contagia entusiasmo por la pelota. “Toda la vida peleando y aquí seguimos, abriendo camino a las chicas que vienen detrás, para que no se sientan solas, como nos pasó a nosotras. Con 13 años tuvimos que dejar la pelota a mano y pasarnos a la pala, porque nos decían que aquella no era una modalidad para mujeres”.

Para abrir ese camino y dotar de una estructura profesional a la pelota femenina, Iera ha fundado con varias compañeras la asociación Ados Pilota, que ya reúne a 25 chicas jóvenes como escuela formativa y a una decena de jugadoras con el objetivo de vivir de este deporte. “Por poco dinero que se mueva con la pelota femenina, que revierta en las jugadoras”, repite.

De momento, el profesionalismo es un objetivo. De hecho, Iera llega a la entrevista con la lengua fuera. Es educadora en Etxarri-Aranatz, vive en Lekunberri y llega a Leitza para explicar su proyecto, sentada en las vetustas gradas del frontón donde dio sus primeros pelotazos.

En los últimos años ha alcanzado el máximo nivel en la pelota a mano, ganando varios torneos (como el Emakume Master Cup, por ejemplo), pero sobre todo destaca por su capacidad para organizar Ados Pilota y relanzar la pelota femenina con una visión colectiva, igualitaria y cooperativa. “Queremos implantar un modelo distinto al circuito masculino, que está en manos de empresas privadas que, al fin y al cabo, solo buscan su propio beneficio económico”.

Ahora bien, en lo competitivo, no baja ni un peldaño. “Dentro de la cancha -dice con una sonrisa-, a muerte”. 



“Ni hubo ni hay democracia para las putas”

La periodista y cofundadora de la revista Pikara Magazine, **Andrea Momoitio**, acaba de publicar su primer libro, “**Lúnatica**”, donde rescata la historia de María Isabel, una prostituta de Bilbao, y la huelga de putas que originó su muerte en la cárcel

NAGORE URIARTE

Putas, maricas, yonquis, pobres, quinquis, macarras, camellos, ladrones, locos... Todos tienen cabida en **Lúnatica** (Libros del K.O., 2022), escrito por la periodista, Andrea Momoitio, que nos traslada al franquismo y a la posterior dictadura. El libro nos habla de prostitución, cárceles, pobreza, presos sociales y toda la *chusma* a la que abocaron a los márgenes de la sociedad.

María Isabel Gutiérrez Velasco, la protagonista del libro, fue hallada calcinada en su celda, el 10 de noviembre de 1977, en la cárcel de Basauri (Bizkaia). Era prostituta y la detuvieron por robar en El Corte Inglés. Sus compañeras no se creyeron la versión oficial de su muerte y organizaron una huelga de prostitutas en Bilbao. Se enciende entonces la chispa de la solidaridad entre quienes



habían sido olvidadas, maltratadas y abocadas a los márgenes por las instituciones. De la mano de otros colectivos políticos, convocaron manifestaciones y encierros para exigir la amnistía de las y los presos sociales y la derogación de leyes franquistas que afectaban especialmente a las personas disidentes.

¿Era María Isabel una lunática? Una compañera de oficio decía que tenía muy mala luna, pero que cuando estaba con ellas estaba bien. Confiesa la autora que escribir este libro le ha ayudado a entender y perdonar a otras locas. Según el diccionario, 'lunático es quien padece locura, no continua, sino por intervalos'. Quien esté libre de pecado, que tire la primera piedra.

Prostituta, ¿loca? y pobre

En **Lunática** nos encontramos con una María Isabel prostituta, ¿loca? –sí, con signos de interrogación–, pobre, y de un barrio conflictivo de Bilbao. ¿Pueden entenderse esos elementos los unos sin los otros?, le preguntamos a la autora. No vacila en la respuesta: “No, es imposible. Es lo que siempre se afirma desde los feminismos: o aplicas una perspectiva interseccional o no vas a comprender muchas cosas. No se puede entender a María Isabel sin todos esos ejes de opresión que recorren su vida y la de su familia. Todos esos ejes la atravesaron por igual, la fueron configurando”.

Violencias compartidas

Putas, maricas, yonquis, pobres, quinquis, macarras, camellos, ladrones, locos... Hay una conexión entre todos esos colectivos: habitan los márgenes. Así, la muerte de María Isabel, el 10 de noviembre de 1977, encendió la rabia de las prostitutas, y

“Prostituten grebarekin batera piztu ziren mobilizazioetara batu zen jende bera da gaur egungo manifestazioetan ikusten duguna. Polita da hori”.

esa furia también prendió, inevitablemente, la solidaridad de otros colectivos, dando lugar a experiencias compartidas, como la creación, en Bilbao, del comité de marginados. Las prostitutas marcharon, club por club, recogiendo las quejas de sus compañeras.

A la ira de las putas de la calle Cortes –zona atravesada por la minería y la prostitución– enseguida se le unieron tres colectivos: los comités de apoyo a la COPEL (la Coordinadora de Presos En Lucha, formada por presos sociales que reivindicaban la amnistía también para ellos); EHGAM (Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua), ligado al barrio bilbaíno por el cabaret; y el movimiento feminista, representando, principalmente, por la Asamblea de Mujeres de Bizkaia- Bizkaiko Emakume Asanblada.

Nació entonces una articulación y una lucha política de gran potencial. Como recoge el libro, “había grandes diferencias entre ellos, pero no tantas como para ignorarse unos a otros”. Precisamente, el libro recoge el testimonio de Imanol Álvarez, de EHGAM. “Nos sentíamos muy unidos y machacados por lo mismo”. “Las coordinadoras de marginados, que también se crearon en Madrid y Barcelona, son un ejercicio brutal de interseccionalidad”, afirma Momoitio con orgullo. “En Bilbao participaron pocos colectivos,

pero en Madrid hubo mucha diversidad, estuvieron presentes personas psiquiatrizadas, minusválidas...”

Tal y como recoge **Lunática**, “el barrio ha sido siempre refugio de pecadores y pecadoras, símbolo de la falsa sensación de libertad que provoca la precariedad y abandono institucional”. Momoitio recuerda con cariño aquella época, sin caer en la tentación de idealizar el pasado. “Aquello no era jauja, pero tampoco era twitter. A pesar de las grandes diferencias, seguía habiendo espacio para el pote, el diálogo... A pesar de que en algunos colectivos había más siglas que personas, se llevaba de una manera distinta a la de ahora. Ahora, en la era de las redes sociales, mientras todas nos reivindicamos activistas en las redes, cada vez hay menos gente en las asambleas”, lamenta.

Luchas que convergen

Cuando fallece María Isabel más de 2.000 mujeres salieron a la calle. En ese mismo momento, 10.000 jubilados recorrían la ciudad para pedir la actualización de sus pagas, poniendo especial atención a los mayores de 70 años que sólo percibían 1.500 pesetas. Se produjo entonces un paralelismo entre distintas luchas que hoy, 40 años después, se repite. “Lo bonito es que muchas de las personas que estaban en esas movilizaciones ahora están en la manifestación de



las y los pensionistas; es la misma generación", apostilla la autora.

Rabia compartida

Momoitio reconoce que, analizando la documentación y la hemeroteca, la huelga de las prostitutas no tuvo el calado que entonces pretendieron trasladar los medios de comunicación.

¿Pero, por qué no prosperó la huelga? Aquí también afloran la pobreza y el género. "Porque las putas están muy liadas. La rabia por la muerte de María Isabel no duró mucho porque organizarse a largo plazo requiere condiciones materiales. No es fácil sostener una huelga, y la calle es dura. Es muy difícil salir de la precariedad

siendo prostituta. Algunas ejercían por temporadas, no todas podían permitirse dejar de follar un par de noches, muchas tenían chulos que tampoco lo permitían... Ser puta nunca ha sido fácil. Incluso ellas, que hacían una ruptura tan grande con el ideal burgués, luego tenían que hacer de señoras ante su familia, su chulo, su marido, sus padres, sus hermanos... Hay normas que no pueden saltarse, como dejar de trabajar para tomar la calle y protestar".

Las putas, acompañadas por los comités de apoyo a la COPEL, por feministas y grupos de lesbianas y maricas, decidieron paralizar el ejercicio de la prostitución en esa zona de Bilbao. "Ha muerto una compañera, hoy no se trabaja",

decían, mientras cerraban, uno a uno, los bares de la calle Cortes. Hubo piquetes para cerrar clubs".

Pero el paternalismo también afloró en la huelga. "Los clientes, en las puertas de los clubes, se reían de ellas. '¿Cómo que estáis de huelga?', les decían, mientras alguna contestaba gritando: 'Hoy no se folla, claváosla en el suelo! o 'Iros con vuestras mujeres'".

Memoria histórica: no sin ellas

Las reivindicaciones de las prostitutas eran claras: acabar con la represión policial que les impedía ejercer otros oficios; abolir el reglamento de prisiones (mejor trato, mejor comida, mejores condiciones sanitarias)



“Memoria historikoa ezin da ulertu Frankismoko Emakumeen Babeserako Patronatuak eta Arriskutasun eta Birgaitze Sozialaren Legeak kaltetutakoak aintzat hartu gabe. Frankismoak askoz biktima gehiago utzi zituen”.

y las celdas de castigo; poder acogerse a las condiciones de cualquier trabajador (seguridad social, seguro de desempleo y seguro de enfermedad); derecho a poder organizarse libremente para formar un sindicato propio; un control médico periódico y gratuito; y la creación de una escuela para aprender un oficio, a leer y a escribir.

A pesar de ser una huelga corta e irrelevante en cuanto al alcance de los objetivos –no consiguieron ninguna de sus reivindicaciones–, tiene una gran trascendencia. La propia autora reconoce que la huelga sólo es un acicate para abordar temáticas de calado. “La huelga y la historia de María Isabel son una excusa para hablar de una época y de unas violencias que para mí son importantes y que han estado y siguen invisibilizadas. Hay dos elementos claves del franquismo que articulaban la vida de las personas en los márgenes y las abocaban a situaciones de violencia atroces: el Patronato de Protección a la Mujer (1941) –institución franquista que podía encerrar a mujeres jóvenes que se encontraban “caídas o en riesgo de caer”– y Ley de Peligrosidad y Rehabilitación Social (1970) que castigaba conductas que consideraba antisociales. Ambos elementos están, aún hoy, poco explorados y deben tenerse en cuenta cuando hablamos de memoria histórica, justicia y reparación”.

La doble moral

Tal y como recoge el libro, las putas estaban atravesadas por un engranaje de normas franquistas que buscaban guardar la moralidad católica. La postura del franquismo respecto a la prostitución fue variando. Hasta 1956, el régimen mantuvo una postura higienista.

Así, Momotio cuenta que las putas tenían que acudir a revisiones ginecológicas. “Este control médico nunca se planteó para protegerlas, sino para evitar que los hombres de bien se contagiaran de enfermedades venéreas. La prostitución siempre se ha vertebrado desde una perspectiva masculina”, denuncia.

Sin embargo, a partir de 1956 se introdujo en el Código Penal el delito de prostitución, que castigaba a quienes facilitaran la prostitución. La prostitución continúa, pero ahora ahora desde unas condiciones de vulnerabilidad muchísimo mayor. “Ningún decreto abolicionista, si no va acompañado de medidas de protección para las mujeres, acabará con la prostitución. Si se quiere tender hacia el abolicionismo –con lo que comulgo totalmente– debe hacerse de la mano de las putas, desde sus demandas y necesidades y poniendo sus vidas y sus derechos en el centro. De lo contrario, se repetirá lo que paso en 1956, se prohibirá la prostitución, pero se seguirá

haciendo a escondidas, con mayor precariedad y riesgo”.

Control social

El franquismo articuló dos leyes de control social que ejercieron una gran violencia sobre los colectivos que se apartaban de la norma: la Ley sobre Peligrosidad y Rehabilitación Social y el Patronato de Protección a las Mujeres.

La Ley sobre Peligrosidad y Rehabilitación Social fue una ley del código penal español aprobada por el régimen franquista el 5 de agosto de 1970 que no se derogó hasta 1995 y sustituía a la Ley de vagos y maleantes –que el franquismo heredó de la II República–, cuyo objetivo era el control de todos los elementos considerados antisociales.

“Quienes cuestionaban el ideal de la familia, de hombre o de mujer, gente que apostaba por una sexualidad al margen de la reproducción o quienes cuestionaban la importancia suprema del trabajo eran castigados”. Esta ley, en teoría, no condenaba delitos sino conductas. “En torno a esta Ley se generaron muchos espacios físicos y centros que llamaban de rehabilitación aunque, en la práctica, eran cárceles”. Cárceles como la de mujeres prostitutas de Alcázar de San Juan (Ciudad Real), o las cárceles para maricas activos y pasivos de Huesca y Badajoz.



Psiquiatrización de los márgenes

Del mismo modo, el objetivo del Patronato de Protección a las Mujeres, institución franquista que dependía del Ministerio de Justicia, era “la dignificación moral de la mujer, apartarla del vicio”. Para el resto de sujetos que quedaban en los márgenes tenían la Ley de Peligrosidad Social. María Isabel fue ingresada en un hospital psiquiátrico junto a toxicómanos, esquizofrénicos, alcohólicos, personas con síndrome de down...

¿Podemos hablar entonces de la psiquiatrización de los márgenes?, preguntamos. “Sí, totalmente. La Ley de Peligrosidad es muestra de ello. Se la aplicaban a los maricas, a las personas trans... La disidencia siempre se ha psiquiatrizado o ligado a una enfermedad”.

Ley de Amnistía: No sin la chusma

La muerte de María Isabel comparte tiempo y espacio con otras luchas. Justo antes de su muerte, comienzan distintas luchas sociales que acaban convergiendo.

Momoitio habla de la Ley de Amnistía de 1977, que no incluía a los presos sociales y que encendió los ánimos en las cárceles. Por primera vez, los presos se subieron a los tejados de las prisiones para reclamar su derecho a la amnistía. “No se entendía que robar pudiera tener alguna intencionalidad política o ser consecuencia de un sistema de organización social injusta. Aún hoy, no se entiende”. El libro recoge el testimonio de una vecina. “¿Sacar de la cárcel a los violadores y los ladrones? Pero si esos son los malos!”. “Tampoco hubo democracia para las putas. No la hubo entonces, ni la hay ahora”, añade.



“Puten grebak ez zuen denbora luzean iraun greba bat mantentzeko baldintza materialak behar direlako eta oso zaila delako prekaritatetik aldentzea prostituta izanda”.

“Aún hoy, el lugar que tienen los presos políticos no es el que tienen los y las presas sociales. Seguimos sin entender que nadie roba por placer. “Este barrio es un buen ejemplo de la criminalización de la pobreza. Las cárceles están llenas de gente pobre. Las presas sociales, desde sus diferencias, tienen un elemento común: son pobres. Ahora, probablemente, intuyo que también encontraremos cada vez más personas migradas en las cárceles, porque en la base está la pobreza”, matiza.

¿Es la pobreza otra forma de violencia? “Totalmente. Y el

robo puede ser una forma de resistencia. Es conflictivo, difícil de argumentar o defender, pero a priori, entiendo el robo como una resistencia. Obviamente no lo celebro, pero no podemos obviar que es la consecuencia de un sistema basado en las desigualdades”.

(Des)memoria histórica

Momoitio considera que nos encontramos en un momento clave para crear una memoria histórica inclusiva, que incluya a todas las personas que el sistema, históricamente, ha olvidado. “Cuando hablamos de

memoria histórica y víctimas del franquismo es fácil olvidar a las víctimas del Patronato de Mujeres y las de la Ley de Peligrosidad. Hubo gente reprimida por el franquismo más allá de las cunetas”.

Ellas también son quinquís

Momoitio remarca que en la huelga de prostitutas se sacudieron viejos roles y se visibilizaron nuevos cuerpos y estéticas que rompían con los imaginarios colectivos de la época. Menciona una manifestación del 25N de la época. Habla de 10.000 personas, con travestis en primera fila sosteniendo la pancarta, “travestis que ya no están en las manifestaciones del 28J y muchísimo menos en las del 8M”, remarca. Lamenta que no exista material gráfico de la multitudinaria manifestación, marcada por la violencia y represalia policial.

“Tuvieron mucho protagonismo dos tipos de mujeres que no era habitual ver en primera línea de las movilizaciones: las prostitutas y las mujeres trans, que entonces se reivindicaban como travestis, pero que hoy las entenderíamos como mujeres trans. Presentaban unos cuerpos, unas estéticas y unas formas de protestar y relacionarse entre ellas muy concretas y distintas, por ejemplo, a las formas de protesta que tenían las feministas, chicas jóvenes que estaban en la universidad, que no habían pasado mucho por la calle Cortes. Ellas no eran esas mal habladas, esas quinquís, eso eran las otras. Este libro pretende aportar y visibilizar que en esos márgenes también había mujeres. Durante un tiempo pensé que no había mujeres en la COPEL –al menos de forma documentada– porque tal vez no se identificaran con esas protestas tan agresivas. Sin embargo, luego me he

“Historian zehar emakumeak ere izan dira borrokaren lehen lerroan, ukabila altxatuta, baina ikusezin bilakatu dituzte. Berreskuratu dezagun euren memoria”.

encontrado con autolesiones de mujeres, huelgas de hambre muy potentes... sobre todo, de las mujeres de los GRAPO (Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre). Parece que lo quinquí era cosa de hombres, pero no es verdad, y las imágenes que nos deja esta huelga y los acontecimientos que se sucedieron lo demuestran. Cuando pensemos en lo quinquí pensemos también en ellas”.

Recuperarlas

¿Es necesario crear una épica obrero feminista? “No hace falta

crearla, sólo hay que rescatarla. Se trata de identificar sus historias y contarlas. Las mujeres hemos estado siempre, sólo que han querido borrarlos. Había mujeres en primera línea de lucha, levantando el puño, pero les convenía que estuviéramos en casa. Parece que las mujeres acabamos de llegar a la tierra, pero siempre hemos estado”, asevera.

Pone como ejemplo las primeras jornadas feministas de Euskadi, celebradas en 1977, en las que participó un grupo de mujeres de la Babcock Wilcox, ‘la Balco’, el emblema tecnológico de nuestra industria pesada. Parece que en Sestao, Portugalete... sólo había hombres en los astilleros, pero ellas estaban ahí y tenían claras sus reivindicaciones. “Que no sepamos nada más de ellas no es su responsabilidad, si no la nuestra. Hay que rescatarlas”, concluye. **A**



Aberri eguna: 90 años de compromiso militante

Se celebra este año el 90 aniversario del primer Aberri Eguna. Aquel día, 27 de marzo de 1932, el movimiento abertzale realizó una auténtica demostración social y política, movilizando a 60.000 personas venidas de todo el país para manifestarse en Bilbao "como una sola persona", según los cronistas de la época. Sólo unos días después, el poeta, traductor, periodista y propagandista de ELA Esteban Urkiaga "Lauaxeta" (que sería fusilado por los franquistas cinco años después) escribía emocionado en el diario Euzkadi: "orain ez daukagu beldurrik... Itzartu gara eta aurrera goaz" (Ahora no tenemos miedo... Hemos despertado y vamos adelante). Una frase oportuna también hoy, que vivimos un tiempo de enormes incertidumbres, como nación y



como humanidad. La celebración del Aberri Eguna es siempre una ocasión para renovar nuestro compromiso militante con la construcción de nuestro país y con los valores que animan nuestro proyecto sindical. Por eso, el Consejo Nacional de ELA

aprovechó la reunión del pasado 8 de abril en Altsasu para recordar la onomástica. Así mismo, una delegación de ELA estuvo presente el 16 en el acto organizado en el ayuntamiento de Urruña con motivo del Aberri Eguna.

Hezkuntza Legeak langileen bizkar eginda dago eta Espainiako estatuak ezarritako arau- eta curriculum-esparrua onartzen du

Ikastoletako, hezkuntza publikoko eta gizarte-ekimeneko ikastetxeetako ELAko ordezkariak diagnostikoa partekatzen dute: patronal, indar politiko eta gobernuek urteetan hartu eta adostutako erabakien ondorioz, ikasleak euskalduntzeko gero eta zailtasun handiagoak daude, eta gero eta uniformatzaileagoa, merkantilistagoa eta segregatzaileagoa da egungo Hezkuntza sistema. Horren aurrean, ELAko kideek garbi dute errealitate hau aldatu behar dela, eta horretarako jomuga gisa hartu behar da lan baldintza egokiak izango dituen sare bakarreko hezkuntza sistema propioa, euskalduna, publikoa, inklusiboa eta anitza. Eta argi dute, helburu horretara iristeko balizko trantsizio bat egingo bada, hezkuntza sistema osatzen duten langile guztiak kontuan hartuta egin beharko dela.

Legebiltzarrean jorratu den prozesuan, ordea, ez da halakorik gertatu. Legebiltzarrean Hezkuntza Legea osatzeko onartu berri diren oinarrien lanketa prozesuari eta edukiari erreparatuz, honako hiru ondorio nagusi ateratu dituzte: Langileei bizkarra emanez egiten ari den prozesu baten aurrean gaudela; prozesu honetan alderdi politikoek izan duten helburu bakarra akordiorako gaitasuna erakustea izan da; funtsezko gaitetan benetako aldaketak adostu ez arren, hobekuntza nabariak egin dituztenaren itxurak eginez; egungo hezkuntza sistema betikotzeko proposamen baten aurrean gaude. Bereziki larria da Espainiako estatutik inposatutako hezkuntza marko kurrikularra eta arautzailea ontzat eman dutela.

14 mayo, manifestación de Araba Bizirik contra la Ley Tapia

Araba Bizirik ha convocado una manifestación el 14 de mayo para denunciar que el Gobierno Vasco puede utilizar el estado de emergencia energética para poner en marcha megaproyectos declarados de interés público por la denominada *Ley Tapia*. Así las cosas, piden al ejecutivo que lleve a cabo una política de protección real de las áreas destinadas a cultivo y labranza que son imprescindibles para garantizar la soberanía alimentaria, la vida rural y la cohesión territorial. Esta plataforma rechaza, también, los megaproyectos vinculados a la actividad intensiva de la agricultura y ganadería por ser insostenibles y por alterar de forma irreversible el entorno natural.

Beasaingo etxez etxeko Zerbitzuan %24ko soldata igoeraren akordioa

Beasaingo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileek akordioa lortu dute eta, besteak beste, %24ko soldata igoera aurreikusten da. Hainbat mobilizazio eta 13 eguneko grebaren ondoren, martxoaren 16an Goxara enpresako 28 langileek –Udaleko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren azpikontratarentzat egiten dute– lan hitzarmen berri baterako akordioa lortu zuten PRECO-n.



Besteak beste, akordioak jasotzen du: %24ko soldata-igoera 2023tik aurrera, eta KPI + %2,5 2024rako eta gutxieneko kontratua, 25 ordu astean.

7 mayo, manifestación de EK en Iruña

ELA, junto a los sindicatos LAB, STEILAS y ESK, se ha adherido a la manifestación convocada por Euskalgintzaren Kontseilua el próximo 7 de mayo, en Iruña, contra el Decreto de Méritos que prepara el Gobierno de Navarra para valorar el conocimiento del euskera en las administraciones públicas. ELA advierte de que se perpetuarán las vulneraciones de derechos actuales y exige que se extienda la oficialidad del euskera a todo el territorio navarro.

Greba Bizkaiko garbikuntzan, soldata arrakalarekin amaitzeko eta 1.200 euroko gutxieneko soldata lortzeko

Bizkaiko eraikin eta lokaletako garbitzaileek bat egin zuten ELAk, LABek eta ESK-k deitutako lehen greba-egunean, langileek bide-garbikuntzako lankideekin alderatuta duten soldata-arrakalarekin amaitzeko eta 1.200 euroko gutxieneko soldata lortzeko, 15 ordainsaritan banatuta. Azaroaren 18an Bizkaia osoan hasitako mobilizazioen ondoren, langileek greba egingo dute berriro apirilaren 26an eta 27an eta maiatzaren 10ean, 11n eta 12an. Sektore feminizatua da, lanaldi osoan 16.000 euro baino gutxiagoko soldatekin, eta barrualdeko garbiketako langile gehienek lanaldi partzialeko lanaldiak dituzte. KPlaren inoizko daturik altuenera iristen den bitartean (une honetan % 6,5ean dago), langileek izoztutako soldatekin jarraitzen dute.

ELA crea Bidelagun Fundazioa para ser más eficaz en la prevención y reducir los 40.000 accidentes anuales en las empresas vascas

ELA ha decidido crear Bidelagun Fundazioa, una fundación con entidad propia que supondrá una herramienta más efectiva para combatir los incumplimientos de las empresas en salud laboral, utilizando para ello la formación y los recursos jurídicos. Tendrá su sede principal en Durango, desde donde atenderá los casos de toda la CAPV y Navarra.

Bidelagun Fundazioa nace tras comprobar que la especialización en salud laboral permite innovar, abrir nuevas vías y obtener logros para elevar el nivel en la defensa del derecho a la vida y a la integridad física. Ahí se inscriben la solicitud de medidas cautelares durante la pandemia, los éxitos jurídicos contra el sílice y el amianto y las indemnizaciones logradas a título preventivo cuando las empresas generan riesgos (aunque el accidente y la enfermedad no se hayan producido).





“Mendebaldeko potentziek munduan agintzen ez duten aro batean sartzen ari gara”

Mikel Aramendi, filologoa, kazetaria eta nazioarteko gaietan aditua

GORKA QUEVEDO

Bizi dugun testuinguruaren garrantzia azpimarratzen du Mikel Aramendi (Itsasondo, Gipuzkoa, 1955) nazioarteko adituak. “Mendebaldeko potentziek munduan agintzen ez duten aro batean sartzen ari gara”. Horregatik, Ukrainako gerra aitzakia hartuta, martxoa amaieran Aramendirekin elkartu gara Donostian, egungo abaguneaz egiten duen hausnarketa ezagutzeko.

»Otsailaren 24ko goizaldean Errusiak Ukraina erasotu zuen. Espero al zenuen?

Espero ala ez espero diskutigarria litzateke. Astebete lehenagora arte, gutxi gora behera, gerrarik ez zela egongo esaten nuen. Uste nuen ez zegoela gerra egoteko kondiziorik. Azken astean, ordea, bilakaera susmagarria ikusi nuen. Adierazpen eta mugimendu guztiak gerra izatearen alde joan ziren. Gerra hasi zela abisatu nindutenean ez ninduen ezustean harrapatu.

Ikuspegi kontzeptual edo teorikotik gerra gertatu zitekeela guztiz sinesgarria zen lehenagotik. Baldintza batzuk bazeuden, gorabehera batzuk, adierazpenak bide horretatik zihoazen... Erregaia hor zegoen eta momentu jakin batean norbaitek pospoloa piztu eta gerra abiatu zen. Gertatu dena ez da harrigarria.

Perspektiban ikusita baldintzak emanak zeuden, eta harritu baginen gure inozotasunagatik edo fede onagatik izan zen.

Norbaitek esango du gerra alde aurretik pentsatuta zegoela. Gerra guztiak egoten dira tenore batean luzaro pentsatuta. Armada guztien zereginetako bat da gerrak prestatzea eta planifikatzea. Hori bai, gerra hasteko azken erabaki bat behar da, eta azken erabaki hori batzuetan aspalditxo egon daiteke hartuta, baina kasu honetan esango nuke azken erabaki hori nahiko azken ordutako izan zela. Azken ordura arte egon ziren bideak irekita, baina azken orduan “tira, goazen aurrera” erabaki zelakoan nago.

Alde horretatik ez nuke esango gerraren begiraleak, eta batez ere Ameriketako Estatu Batuak, oso jakinaren gainean zeudenik. Izan ere gerraren inguruan zituzten aurreikuspenak ez dira bete. Eta, batez ere, gauza bat adierazkorra egiten zait. Uste dut azken momentura arte Ukrainak berak ez zuela uste gerra egongo zenik. Gerra horretarako ez zuen neurri berezirik hartu.

»Zergatik heldu gara honaino? Itxi gabeko ‘Gerra Hotz’ baten aurrean gaude?

Dudarik gabe, Gerra Hotza ez da inoiz itxi. Baina, aldi berean, Gerra Hotza bera ere beste joera historiko edo geopolitiko batzuen ondorioa zen. 1989-91 urte



“En esta guerra estamos viendo algunas cosas por primera vez. Mencionaría, especialmente, el papel de China. La implicación no está siendo muy visible, pero se están moviendo mucho por debajo. A China le interesa que la guerra termine lo más rápido posible”.

bitarteetan gertatu zena Sobietar Batasunaren inposioa izan zen. Horren ondorio edo albo ondorio bat izan zen, noski, bloke militar baten desagertzea, Varsoviako Itunaren desagertzea. Hori zen Gerra Hotzaren amaiera? Ez. Perspektiba historiko apurtxo batekin begiratzen badugu, ondorengo hamar urteetan Balkanetan izan ziren gerrak Gerra Hotzaren jarraipena izan zirela ondorioztatu dezakegu.

Geroztik, 1990. hamarkadatik hona Kaukaso aldean izan diren istiluak eta gatazkak ere Gerra Hotzaren jarraipena izan dira. Baina, era berean, zenbateraino ezin dugu esan Afganistango gerra edo Asia erdialdeko gerrak ez direla Gerra Hotzaren jarraipena izan? Gerra Hotza ‘Varsoviako Ituna VS NATO’ kontraesan bat bezala ikusten badugu, hori, noski, 1991tik aurrera desagertuta zegoen, baina horren azpian zeuden kontraesanak ez dira desagertu. Gerra Hotzak bazituen gero beste alde batzuk mugitu ez direnak. Esango nuke okerragora ere joan direla. Sobietar Batasuneko hegoaldeko frankoko kontraesanak areagotu besterik ez dira egin azkeneko 30 urte hauetan. Asiako munduan Gerra Hotzak beste tenore bat izan zuen, baina, bueno, esan behar da duela 30 urte Asia hegoaldeko egoera samurragoa edo baketsuagoa zela gaur egun dena baino. Alde horretatik, behintzat, Gerra Hotza, kontzeptu gisa, errebisatu egin beharko genuke.

» **Gerra hasi zenean Errusiako armadaren nagusitasun militarra aipatzen zen, gerra azkarra izan zitekeela zirudien. Gaur gaurkoz, ordea, ez dirudi amaiera militarra gertu dagoenik.**

Mapari erreparatu behar zaio. Horrelako erasoko operazio militarrek hasten direnean lehendabiziko egunak eta orduak erabakigarriak izaten dira, ordu horietan ahalik eta helburu gehien lortu behar dira. Beste kontu bat da lehen orduko helmuga militar horiek ote diren azken helburuak. Ukrainako kasuan kontuan izan behar da herrialde handi bat dela. Hedaduraz Europako bigarren herrialderik handiena da, eta populazioa Espainiar Estatuaren adinakoa da. Bere indar armatuak ez dira txantxetakoak. Ez da logikoa pentsatzea Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka militar bat Errusia eta Georgiaren artekoa bezala izango zela.

Nik ez dut garbi eduki helburuak zein ziren. Gerra militarren atzetik informazio gerra dago. Jakintzat ematen zen Errusiako armadak Kiev hartu nahi zuela, baina niri zalantza handik sortu dizkit horrek hasieratik. Hiri handi bat hartzea oso lan nekeza eta gaiztoa izaten da, eta normalean armadek hori saihestu egiten dute.

Gatazka honek negoziazio mahai baten bueltan amaitu behar duenez, kontua ez da horrenbestearaino zenbat lurralde zeureganatzen duzun, baizik eta zein posiziotan lortzen duzun negoziazio mahaira heltzea. Edonola ere, Errusiari ez zaio gerra luze bat interesatzen.

» **Asko luzatzen bada “eslaviar Afganistan” baten aurrean egon gaitezke?**

Errusiak oso eskarmentu bihurria dauka Afganistangoarekin. 1978an sartu ziren Afganistanen. Lehen orduetan hartu zituzten hiriak, Kabul esaterako. Baina hortik aurrera hamar urtez aritu behar izan zuten irabazi ez zuten gerra batean, edo, bestela esanda, galdu zuten gerra batean. 1988an egin zuten azken erretreta, eta nik uste horrek oso eskarmentu txarra utzi zuela. Alde batetik garaipena ez lortzeak indar armatuen moralak astindu zuen, baina gainera sobietar gizarteak barruan zituen arrakalak erakutsi zituen. Eta arrakala horien artean zeuden erlijiosoak, etnikoak, hizkuntzenak... Horrek bere pisua eduki zuen Sobietar Batasunaren desgitean. Gerra horren kostu ekonomikoa oso altua izan zen. Nik uste horiek ikasitako ikaskizunak direla eta horregatik ez dutela buruan Ukrainan gerra luze bat izatea. Errusiarentzat ideala litzateke hilabete baten ala bi hilabeteren buruan hau negoziazio mahai batetara eraman eta alde aurretik dituzten helburu politiko-militarrak lotu eta erretiratu ahal izatea. Hori da asmoa, baina oso zaila izan liteke gauzatzea.

» **Posible da galtzailerik gabeko akordio bat, ala gerra batean ezinbestean irabazle bat eta galtzaile bat egon behar dira?**

Alde guztiak aseko dituen konponbiderik ez dago. Gerraren alde bultzatzen duten indar batzuk egon badaude, eta indar horietako batzuei ez zaie bakea komeni. Baina Errusiaren eta Ukrainaren interesak kontuan hartuz, Errusia Ukrainaren neutralizazioa



proposatzen ari da. Hau da, Ukrainarekin nolabaiteko 'Finlandia bis' bat egitea: mugakide duen herrialde handi xamar bat, ekonomikoki garrantzitsua dena, baina militarki lerratu gabea eta gainera indar militar oso koxkor edo apalarekin. Hori izango litzateke Errusiaren helburu ideala, Ukraina NATOTik kanpo egotea, neutralizatuta. Hortik aurrera, Ukrainaren barne politika, nolabait esatearren, Ukrainarren kontu bat izango litzateke.

Horren trukean Ukrainak zer nahi lezake? Ukrainan, hasteko, orain arte ez da egon iritzi bateratu bat. Alderdi edo joera politiko bakoitzak ikuspegi batzuk zeuzkan. Ikuspegi batzuk oso Errusiaren aurkakoak ziren, eta beste batzuk aipatutakoa bezalako konponbide batekin ase litezke.

Hala eta guztiz ere badago arazo oso garrantzitsu bat: Ukrainaren ekonomia. Ukrainako ekonomia Errusiari oso lotuta dago, dependentzia energetikoa, batez ere gasarekiko, ez da makala. Eta beste zenbait gaitan ere dependentzia ekonomikoa hori garrantzitsua da. Zelenskirentzat (Ukrainako presidentea) eta abar soluzio ideala litzateke Europar Batasunean sartzea, eta Europar Batasunean, gainera, nolabaiteko babes estatus

“Esta guerra está siendo una especie de escuela para China. China está aprendiendo cómo funcionan las represalias económicas. Mi impresión es que China está convencida de que dentro de unos años van a tener un conflicto militar con Estados Unidos, y esto lo están utilizando como banco de pruebas”.

bat izatea, hau da, herrialde bereziki babestua edo lagundua izatea teknologikoki, inbertsioen aldetik, non Errusiaren eragin ekonomikoa ordezkatzan joan ahal izango zen mendebaldeko eragin ekonomikoarengatik. Hau esaten erraza da, baina egiten oso zaila.

»Zeintzuk izango lirateke hori egiteko zailtasun nagusiak?

Europar Batasunak, eta batez Alemaniak, Errusiari begiratzen dio, berekiko dependentzia handia duelako. Eta ez da borondate edo inozokeria kontua, behar ekonomiko larri baten ondorio da: lehengaiak, erregaiak eta abar behar dira eta Errusia da horiek lortzeko biderik errazena. Alemaniari oso erraz esaten zaio: “utzi itzazu alde batetara lehengai horiek”. Ados, baina lehengai horiek ezin ditu alde batera utzi, eta Alemaniak beti zeharka begiratu beharko du Errusiak zer deritzon berak Ukrainan egin dezakeenaren inguruan. Konponbide hauek mahai gainean egongo dira, baina, horretarako, noski, lehenengo armek isildu egin behar dute eta negoziazio mahai batera joan, eta oraingoz ez gaude eszenatoki horretan.

»Gatazka hau Ukrainara mugatuko da? III. Mundu Gerra baten hasieran egon gintezkeela esatea gehiegizkoa da?

Horretan optimista xamarra naiz Europarekiko. Europan ez dut baldintzarik ikusten gatazka hau, gatazka militar moduan, zabaltzeko. Europa ekialdean ere Errusiaren kontrakoak direnen artean, Baltikoko herrialdeak eta Polonia, ez ditut ikusten Errusiarekin mokoka hasteko jarreran. Beste kontu bat da ea tentsioa mantentzea interesatzen zaien eta abar.

Gatazka hasi zenetik Balkanei begira nago. Eta Balkanetan gauzak ez dira bereziki gaiztotu. Nire benetako beldurra hauxe zen: ea zer gertatuko den Bosnian. Bosnian beste gatazka bat dugu, bere garaian oso larria izan zena, eta hala moduz itxita dagoena. Eta gatazka horren inguruan azkenaldian tirabirak eta abar izan dira. Ez du ematen gatazka hori gehiago gaiztotu denik, baina gaiztotu daiteke.



Hau esanda, gatazka honek badu saiheits unibertsal edo mundial bat. Eta hor bai, hor ez naiz batere optimista. Ameriketako Estatu Batuen aldetik ikusten da gai hau Txina aldera eramateko saio garbia. Honi gehitzen badiogu lehendik ere Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren artean dauden talka guztiak, hau gehigarri bat da. Horien arteko gatazka ez da honengatik hasiko, baina honek areagotu egin du egoera. Ikusi besterik ez dago, esaterako, Errusiak aspalditik itxi gabeko gatazka bat duela Kurile Irletan Japoniarekin eta bereziki gaiztotu dela. Ez da, noski, gerra batera joango, baina areagotzen ari da.

» **1962. urtetik (Kubako misilen gatazka) gizateariarentzat unerik arriskutsuena bizi dugula diote aditu askok. Argi dago gerra nuklear batek sekulako triskantza eragingo lukeela.**

'1914ko uztailleko' sindromea deitzen dena ikusten dut. Sarajevoko hilketa hartatik gerra orokorra hasi zen arte hilabete bat igaro zen. Denbora horretan inork ez zuen pentsatzen gerra bat egongo zenik, baina gerra egoteko baldintzak baziren eta azkenik gerrara eraman gintuzten pausoak eman ziren. Honelako zerbait gerta daiteke honen inguruan faktore nuklearra tartean dela.

Martxoan erdialdean hemengo hedabideetan apenas oihartzunik izan ez zuen gertaera bat izan zen. Indiar misil bat, hutsegitez omen, Indiatik tiratu zen Pakistanera. Misil horrek airean egingo zituen lau minutu eta erdian nik uste mundua hortxe-hortxe egon zela. Lau minutu eta erdi horietan Pakistanek misil hori benetakoa, arriskutsua eta abar zela erabaki izan balu, erantzuna neurrikoa izango zen eta orduan bi potentzia nuklearren artean arazo larri bat sortuko litzakete. Indiaren bertsioa da mantentze lan batzuetan norbaitek nahi gabeko botoi bat sakatu zuela. Bueno, horrek ere ez du asko lasaitzen...

Arriskuaren hurbiltasuna eta arriskuaren ezin-ikustasun hori oso-oso larria da. Tentsioak maila horietara hurbiltzen direnean behatz guztiak botoiaren gainean jartzen dira. Badakigu arma nuklearrak erabiltzeko prozesua hori baina konplexuagoa dela, baina askotan bestearen inguruko aurrerapozioak edo kalkuluak gertatu litezke, eta hori da benetako gure arriskua.

» **Nola ikusten ari zara Europar Batasunaren, Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren jarrera?**



“Alguien dirá que la guerra estaba premeditada. En gran medida todas las guerras están pensadas mucho tiempo antes. Una de las tareas de todos los ejércitos es preparar y planificar las guerras. Eso sí, para empezar la guerra hace falta una decisión final, que a veces puede estar tomada hace algún tiempo, pero en este caso diría que esa decisión fue de última hora”.

Gerra honetan zenbait gauza lehenengoz ari gara ikusten. Bereziki Txinaren papera. Gerra, garbi dago, globalki 'Mendebaldeko potentziak versus Errusia' dela. Baina mendebaldeko potentziek oso jarrera ezberdinak dituzte gerrarekiko, eta gerra gogo oso ezberdina izan dute. Frantziak eta Alemaniak, esaterako, hau guztia gogoz kontra hartu dute. Aldiz, Ameriketako Estatu Batuetan, urruntasunagatik eta beraientzat bitartekarien bidez egindako gerra bat denez, animazio harmaila batean baleude bezala ari dira.

Edonola ere, faktore berria Txinaren agerpena da. Txina, normalean, horrelako gerra guztietan, batez ere bere lurraldetik urruti direnetan, inoiz ez du hatz bakar bat ere mugitu. Kasu honetan, ordea, Txinak bi faktore ezberdin ditu. Batetik, gerran ari diren bi alderdiekin harreman historiko ona dauka. Txina Ukrainaren bazkide ekonomiko nagusia da, harreman ekonomiko handia zeukan eta dauka Ukrainarekin. Eta, Ukrainak ez du inolako mesfidantzarik agertu Txinaren jarreraz.



“Como este conflicto tiene que terminar en torno a una mesa de negociación, no se trata de cuánto territorio conquistas sino de la posición en la que consigues llegar a la mesa de negociación. Sea como fuere, a Rusia no le interesa una guerra larga”.

Aldi berean Errusiak ere Txinarekin tratatu moduko bat itxi du, batez ere gerra ekonomikoari dagokionez. Hau da, Txinak Errusiari heldu dio Txinak har ditzan Mendebaldeak hoztuko dizkion erosketak. Eta hori ekonomikoki ere Txinari ondo datorkio. Hortik dator Ameriketako Estatu Batuen presioa; Txinari hori egin ez dezan exijitzen dio.

Arreta deitu dit Txinaren inplikazio mailak. Inplikazioa ez da agerikoa izaten ari, baina azpitik asko mugitzen ari dira. Txinari gerra ahalik eta azkarren amaitzea interesatzen zaio.

Gerra hau Txinarentzat eskola moduko bat izaten ari da. Txina ikasten ari da gerra honetan errepresalia ekonomikoek eta abar nola funtzionatzen duten, zer egin dezaketen eta abar. Nire irudipena da Txinaren aginte elitea, partiduaren zuzendaritza, konbentzituta dagoela urte batzuen buruan Ameriketako Estatu Batuekin gatazka militar bat izango dutela, eta hau frogarri bezala erabiltzen ari direla.

Eta ezin dugu ahaztu Txinari Europar Batasuna interesatzen zaiola bazkide teknologiko bezala, merkatu bezala... Inoiz ez bezalako aktibismoa daukate, diskretua. Beraien diplomazia beti oso diskretua izan da, baina nik uste oraingoan munduko potentzia papera onartu eta praktikatzeko ari dela.

» **Gerra militarra dago, baina gerra ekonomikoa ere. Zein ondorio izan ditzake gerra ekonomikoak? Dolarren hegemoniaren amaieraren aurrean gaude?**

Gerra honek erakusten digu gerra handiak gerra totalak direla. Gerra ekonomikoaren atala hasi da. Edo, hobe esanda, hasita zegoen. Trumpen garaian Txinarekin arantzelen inguruan izan ziren gora behera horiek gerra ekonomiko baten ataria izan ziren.

Ez dakit dolarren hegemoniaren amaiera hasi ote den. Argi daukat dolarren hegemonia noizbait amaitu egingo dela. Hemen ezer ez da betiko, eta bere momentuan dolarren hegemonia nahiko trumilka lortu zen. Nixonen garaian urte patroia eten zenean



Más de la mitad del planeta vive en países que no apoyan las sanciones contra Rusia

Mikel Aramendi (Itsasondo, 1955) es un periodista especializado en política internacional. Colaborador de diferentes medios, es un referente imprescindible para entender en euskera lo que pasa en el mundo. Aramendi destaca el contexto mundial en el que vivimos para contextualizar la guerra entre Rusia y Ucrania.

“Por primera vez en los últimos siglos las potencias occidentales no deciden el mundo. Esto se debe, en parte, al auge de China, pero no sólo por eso. No hay más que fijarse en los procesos que se están produciendo en la India y en los diferentes grandes países asiáticos”.

“En Occidente llevamos muchos siglos haciendo y deshaciendo el mundo desde nuestra propia perspectiva. Ciertas actitudes que se están adoptando hacia China son cada vez más irracionales. El viejo Henry Kissinger sigue diciendo que hay que llegar a un trato con Rusia. Nadie le hace caso. Y Kissinger es muy sabio. No sé si es buena persona, pero sí es un sabio”.

Un cambio de este paradigma es lo que está sucediendo estas semanas en Ucrania. “Más de la mitad de la humanidad vive en países que no han aprobado sanciones contra Rusia. Y, en muchos casos, superando presiones. El caso de India es revelador. Desde siempre ha sido aliado predilecto de Rusia, la mayoría de sus armas son rusas. Ha resistido a las presiones de Estados Unidos que, entre otras cosas, sigue comprando petróleo ruso. Imagínate, al mes siguiente del comienzo de la invasión, la India compró a Rusia cuatro veces el petróleo del mes anterior”. ▲

dolarrak egun duen nagusitasuna lortu zuen. Horrek azaltzen du Ameriketako Estatu Batuek bizi ahal izatea zorra egin, egin eta egin, noizbait norbaitek ordainduko duelakoan.

Beste batzuk urrutirago ere joan dira. Black Rock-eko CEOak esan du hau globalizazioaren amaiera dela. Hau esatea gehiegi iruditzen zait, mundua egun ezer baldin bada interdependentea delako. Errusiak dituen lehengai asko ordezkaezinak edo ia ordezkaezinak dira, gutxienez kantitate eta prezio horietan. Errusiari aluminioa, nikela edo paladioa ez erosteak edo paladio gabe uzten zaitu edo paladioa urrearen prezioan erostera behartzen zaitu. Mundua interdependentziaz josita dago.

Txinaren kasuan lehengaien arazoa txikiagoa izan liteke, lur arraroak eta horrelakoak alde batetara utzita, baina Txinak egiten duen manufaktura gaur egun ordezkaezina da neurri handi batera. Blokeka eraikitako autarkia batera goaz? Litekeena da, baina, hasteko, izugarrizko kataklismo sozial eta ekonomiko baten gainean egin beharko litzateke. Egungo oreka ekonomikoak hautsi egingo lirateke. Gero, bloke horiek euren arteko kompetentzia jartzen baldin badituzu

ez nuke esango mendebaldeak irabaziko lukeenik. Asian kaudimen ekonomiko eta finantzario serioagoak ikusten ditut. Norbaitek puskatu nahi baditu egungo arauak pentsatuz irabazi egingo duela, bejondaiola, baina ez nuke bere aldeko apusturik egingo.

»European militarismo batera goaz? Hilzorian zegoen NATO berpiztuko da?

Neure buruari ere galdera hori egiten diot, eta erantzuna nahiko anbigua ateratzen zait. Gatazka honen inguruko bermilitarizazioarekin gertatzen ari denak kezkatzen nau. Hori, batez ere, Alemaniaren eta Japoniaren kasuan ikusten da. Biak ala biak galtzaile izan ziren II Mundu Gerran, eta harrez gero protektoratu geopolitiko bat izan ziren. Alemaniak eta Japoniak ekonomian sasoialdi bat izan dute, hain zuzen ere, gastu militar eskasa zutelako, eta dirua gastu sozialera edo inbestigaziora bideratu zezaketelako. Militargintza garestia da, eta esango nuke ekonomikoki emankortasun gutxikoa dela. Eta gainera, zer? Tankeak, hegazkinak eta abar egingo dituzu, baina gero inoiz ez erabiltzeko? Gero erabili egiten dira... [A](#)

“La Unión Europea -y, sobre todo, Alemania- mira a Rusia por su gran dependencia de esta última. Se necesitan materias primas, combustibles, etcétera, y Rusia es el medio más fácil de conseguirlos”.



Errenten ituna pobretzerako bidea

IVÁN GIMÉNEZ

Ituna eta errenta, berez, bi kontzeptu positibo eta hitz atseginak dira. Hori entzunda, gauzak konponduko direla uler dezakegu. Nork ez du errentarik nahi (beste modu batez esanda, soldata)? Eta 'itun' hitzak akordioa egon dela ezagutzera ematen du.

Beraz, 'Errenten ituna' kontzeptua erabat salgarria da: gure soldatak bermatuta geratuko direla ulertarazi nahi digute, akordio baten bidez: gatazkarik gabe, zaratarik ez... Berri txarrak ez zaizkigu gustatzen, eta bolada honetan kokoteraino gaude berri txarrak entzuteaz: aire pixka bat behar dugu, eta errenten itunak emango omen digu: ezer egitearen truke eta ahaleginik egin gabe, akordio bat daukagu, gure *errentak* salbatzeko.

ALDA irakurtzen baduzu, jakingo duzu 'errenten ituna' inflazio garaietan beti agertzen dela, arazo guztien konponbidea balitz bezala. Moncloako Itunetatik (1977) hona, klasiko bat bihurtu da, eta beti helburu jakin eta bakar batekin: soldatak inflazio baino gutxiago igotzea. Argiagi esanda: enpresek euren produktuak garestiago salduko dituzte, baina guk diru gutxiago izango dugu behar duguna ordaintzeko, oinarritzko beharrak barne.

Lehen ondorioa: enpresen mozkinak handituko dira. Bigarrena: prezioak ez dira jaitsiko. Hirugarrena: gu pobreagoak izango gara.

Aski dakite hau 1977an Moncloako Itunak sinatu zituztenak. Inflazioa %26koa zen, eta soldaten igoerari %22ko muga jarri zioten: ondorioak luze pairatu genituen... Argazki hartan alderdiak zeuden (PSOE, UCD, AP, PCE, CiU, EAJ...) eta gaur itun berdintsua eskatzen ari diren sindikatuak: CCOO eta UGT.

Ea lortzen dugun historia errepika ez dadin... 





2022

MAIATZAREN LEHENA

BORROKAN ARI GARA

¡ACABEMOS CON LA PRECARIEDAD!

BILBO · 11:30 · JESUSEN BIHOTZA

IRUÑEA · 11:30 · GURUTZE PLAZA

GASTEIZ · 12:00 · VIRGEN BLANCA

DONOSTIA · 11:30 · ALDERDI EDER

**Aktibatu
Lortu
Zaindu**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Aldizkari hau
papera eta
prozedura
jasangarriekin egin
da / Esta revista se
elabora con papel
y procedimientos
sostenibles

Franqueo itundua /
Franqueo concertado

nº 08/129 Zk